

# ek!

...eta kitto!

Euskara Elkartearen astekaria

2020ko ekainak 19 • 1147. zenbakia



## SAN JUAN JAI BEREZIENAK

# EUKi

[www.euki.com](http://www.euki.com)  
943 20 42 91

LAN, LEGE ETA ZERGA AHOLKULARITZA

*Nahiz eta aurten ezberdinak izan,  
Sanjuan zoriontsuak opa dizuegu!*



# CRF AMOSTEGI

## ERREHABILITAZIO FUNTZIONALAREN ZENTRUA

\* **ERREHABILITAZIOA**  
- Pribatua - Aseguruak

\* **FISIOTERAPIA PERTSONALIZATUA**

Esku terapia - Osteopatia / INDIBAterapia (Radiofrekuentzia) /  
Txizaren inkontinentzia (emakumeak eta gizonak)

E.P.I.: Azal-elektrolisi intratisularra / K-LASERterapia / Puntzio lehorra

\* **HAURDUNEN OSASUNARENTZAT  
ETA ERDIONDORAKO DENETARIK**  
- Amatasunerako prestakuntza:

*Haptonomia eta Metodo tradizionala (taldeka/banakakoa)*

- Episiotomiaren prebentzioa, Txiza-inkontinentzia, Prolapsoak: EPI-NO + Masajea

- Lunbalglen, Sakroilialglen, Coxigodnien... esku-tratamendua

- Pelvis-zoruaren balorazioa erdiondoan

- Tratamenduak txizaren inkontinentzia eta/edo inkontinentzia fekalerako, zesareen  
orbaintzat, episiotomiak, perineoko mina, etb.

- Antzutasun funtzionalaren tratamendua

\* **MEDIKUNTZA ESTETIKOA**

- Zelulitisaren tratamendua kabitazio ultrasonikoaren eta elektrolipolisisaren bitartez

- Eskuzko drainatze linfatikoa (DLM) eta/edo presoterapia

- Elektrodrainatze linfatikoa eta baskularra (zainetako itzuleraren areagotzea)



Muzategi, 2 behea Tfnoa/Fax. 943 20 34 46 info@crf-amostegi.com www.crf-amostegi.com

katalogoak

aldizkariak

liburuak

agendak

gida komertzialak

liburuxkak

kartelak

...



zubillaga industrialdea, 9 • oñati • tfnoa. 943 783309 fax: 943 783133 • gertu@telefonica.net



**Azken ostirala - Izan Bidea**

Iraganeko zauriak sendatu, presoen gaia agenda politiko eta sozialean kokatu eta aterabidea ematea herri honek behar duen konponbide prozesuaren zati garrantzitsua da.

Azken urteotan gauza asko aldatu diren arren, presoen gaiak, keinu bat edo beste kenduta, bere horretan jarraitzen du. Begira bestela Ibon Muñoaren kasuari: 20 urteko zigorra betetzeko lau hilebete eskas falta zaizkio eta oraindik han dago Cordoban, I. graduan, isolamenduan, eta etxetik 800 km-ra.

Orain Sanjuanak datoz, eta ez dugu izango ez txosnarik, ez bazkari herrikoirik, ez ezer. Baina guk, 26an AZKEN OSTIRALA dela aprobetxatuz, kolore pixka bat eman nahi diogu. Eta 19:30ean Untzagatik abiatuta kalejira alai eta koloretsua egingo dugu.

Lehenago, 18:00etan mahai bat jarriko dugu, IZAN BIDEA dinamika, mugikorreko aplikazioa eta hainbat gauzari buruzko informazioa emateko. Kamisetak, besokoak... salgai izango ditugu.

Martxan jarri dugun IZAN BIDEA dinamika aktibatzailea izan dadin nahi dugu. Izan ere, guztiok izan behar dugu bide; etxerako, bakerako eta elkarbizitzarako bide.

Gurekin bat etorriko zarela espero dugu. Untzagan ikusiko dugu elkar.

**SARE Eibar**

"Musika beltzean, garrantzia interpretazioan dago. Mendebaldeko tradizio zuriak originaltasuna, autorea hobetsi du. Pop kantari bat da bere kantuak sortu eta kantatzen dituen artista bat. Baina rhythm and bluesetik edo souletik heldu ziren horra, eta horietan ez zeukan garrantzirik. Musika beltzean garrantzitsuena erreala izatea da; transmisore gisa ikusten dute euren burua. Soulak eta beltzen kausak maila globala hartu zuen lehen aldiz 60ko urteetan; baina kontuan hartu behar da segregazioa urtzen hasi denerako herritar afro-amerikarrek badaramatela 300 urte esklabotzan. Belaunaldiak eta belaunaldiak dira hori, non amatik alabara pasatu den apenas ez zarela gizakia. Hori ezin dugu ondo ulertu kanpotik".

**ION CELESTINO, musikaria**

"Gure memorian 3 edo 4 urtetik aurrera bizitutakoak finkatzeko gauza gara, esperientzia batzuk arrastoa lagako badizkigute ere eta beste batzuk ez. 2 urte genituela gordetako oroitzapenak faltsuak dira edo gero eraikitakoak. 5 urtetik aurrerakoak askoz fidagarriagoak dira. 2 urterekin hitzik ere ez dugu gure burmuineko biltegia ondo ordenatzeko, hitz egiten ikasi badugu ordurako; zeozer ez badakizu adierazten, zaila egingo zaizu gordetzea. Gero, 7 urtetik 12rako tarte horretan ere, oroitzapen asko galduko dira bidean, irakurtzen eta idazten ikasi ahala esperientzia berri ugari izango ditugulako, eta hor hautatzea beharrezkoa delako. Bizitzaren azken fasean, eta alzheimerarekin gehiago, lehenengo gaur egingakoak ahaztuko dituzu, gero aurreko Gabonetakoak eta, azkenik, haurtzaroko oroitzapenak. Burmuinak kapetan antolatzen dituelako oroitzapen horiek".

**ALVARO BILBAO, neuropsikologoa****Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera**

**MUSTURRAKEUKI/MUSTURREKIN IBILLI.-** Haserre egon. "Aitzen emon desta andriak musturrak daukazela kanpotik naizelako, eta piparrak daroiaz, honekin hobiak izaten dirala ta."



Euskara Elkartea

**ARGITARATZAILEA**  
...eta kitto! Euskara Elkartea  
**HELBIDEA**  
Urkizu, 11. 20600 Eibar  
**TELEFONOAK**  
943 20 67 76 / 943 20 09 18  
603 598 285  
**FAXA** 943 20 28 72  
**ASTEKARIAREN E-MAILAK**  
erredakzioa@etakitto.eus  
komunikabideak@etakitto.eus  
publizitatea@etakitto.eus  
**ELKARTEAREN E-MAILAK**  
elkartea@etakitto.eus  
normalizazioa@etakitto.eus

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA**  
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,  
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi  
eta Silbia Hernandez  
**ADMINISTRAZIOA**  
Marisol Uriarte  
**KOORDINATZAILEA**  
Ana Aizpurua  
**ERREDAKZIO-BURUA**  
Silbia Hernandez  
**DISEINUA**  
Maku Oruezabal  
**MAKETAZIOA**  
...eta kitto! astekaria

**ARGAZKI ARLOA**  
Malen Jainaga eta  
Malen Illarramendi  
**HIZKUNTZA ARDURA**  
Juan Andres Argoitia eta  
Maider Aranberri  
**PUBLIZITATEA**  
Itziar Albizu eta Belen Ulazia  
**TELEFONOA**  
943 20 67 76  
**AZALEKO ARGAZKIA**  
Fernando Retolaza  
**BANAKETA-ARDURA**  
Idoia Labado

**TIRADA**  
7.780 ale  
**INPRIMATEGIA**  
GERTU koop. (Oñati)  
**COPYRIGHT-A**  
...eta kitto!  
**LEGE-GORDAILUA**  
SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



## TUTULUMENDI



Idurre Iriondo

## Mendekotasunen prebentzioa gazteekin lantzeko jarduera egingo da San Juan bezperan

>>> Osasun-alarmaren amaiera eta ekainaren 22rako aurreikusitako normaltasunerako urratsa kontuan hartuta, Udaleko Prebentzio Zerbitzuak gazteei zuzendutako jarduera egiteko aukera ikusi eta aurrera

egitea erabaki du. Ai Laket-en eskutik ailegatuko zaigu prebentziorako programa ibiltaria, ekainaren 23an, 21:00etatik 01:00etara, eta alkohol eta beste substantzien kontsumoaz arituko dira gazteekin.

## Kontzentrazioa egingo da gaur 18:30ean, publikoaren defentsan

>>> Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak egin duen deialdiarekin bat egingo dute Eibarko pentsiodunek gaur, 18:30ean Untzaga plazak hartuko duen kontzentrazioan. "Publikoa, funtsezkoa zaindu, aberastasuna banatu" goiburuari jarraituz, Eibarren ez ezik, Euskal Herri osoko plazetan deitu dituzte mobilizazioak gaurko egunerako.



**IÑAKI REZOLA**  
HARATEGIA

*San Juan zorientsuak!*

Errebal, 23 – Tel. 943 201 729

**IZADI**  
LORADENDA

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

LORA ETA LANDARE NATURAL ETA LEHORRAK  
EZKONTZETARAKO LORAK  
ZENTROAK  
ERRAMUAK

*Enkarguak etxera*

**MAK CARROCERIAS**

Matsaria, 2  
3 Pabilioia  
-Eibar-

Pintura (labean lehortua) Txapa  
Neumatikoak Mekanika

943 208 502 [carrocerias\\_mak@hotmail.com](mailto:carrocerias_mak@hotmail.com) 699 203 791

**ACITAIN, S. A.**

ZERBITZUGUNEA  
[www.acitain.com](http://www.acitain.com)

**AVIA**

- 24 ORDUKO ZERBITZUA
- Gasoleoen zuzeneko banaketa
- Garbiketa automatikoa eta presioarekin

Tel. 943 12 16 62 Tel./Faxa. 943 12 18 62 [acitain@gmail.com](mailto:acitain@gmail.com)





## Selektibitatea Armeria Eskolan eta Eibar BHIIn egingo da aurten

>>> Unibertsitatara Sartzeko Ebaluazioaren (USE) azterketak, edo Selektibitatea bezala ezagutzen duguna, uztailaren 6, 7 eta 8an (ohiko deialdia) eta uztailaren 20, 21 eta 22an (ezohiko deialdia) egingo da. Bizi dugun ezohiko egoera dela-eta, EHUK eta Eusko Jaur-laritzak handitu egin dute azterketak egiteko lekuen kopurua, ahalik eta osasun baldintza onenetan egin daitezten. Horrela, EHUren hiru campusetako ohiko azterketa lekuei, BEC erakustazoka eta zenbait ikastetxe gehitu zaizkie, hala

nola Eibarko Armeria Eskola eta Eibar BHI, Gipuzkoan, eta BHI Ekialdea (Arabako campus inguruan).

Probaren ordutegi berriak eta proba egiteko protokoloa prestatzen ari dira. Protokolo horrek higie, osasun eta antolakuntza neurriak jasoko ditu, eta ikastetxeei helaraziko zaie. Osasun neurrien artean, nabarmentzekoa da ikasle bakoitzak bere maskara eta azterketa egiteko materiala eraman behar duela, eta une oro zaindu behar du ezarritako gutxieneko segurtasun distantzia.

## Haurreskolen itzulera haurrak erdigunean jartzeko eskatu dute

>>> Haurreskolen itzulera haurrak erdigunean jartzeko exijitu zuten LAB, ELA eta Steilas sindikatuek martitzen goizean Haurreskolak Partzuergoaren egoitzan, Eibarko Hezkuntza Esparruan. “Negoziazio eza, inprobisazioa eta planifikazio-falta nabariak dira haurren itzulera diseinatzerakoan”, aipatzen dituzte sindikatuek. Diotenez, “Partzuergoak familiei bidalitako gutun baten bidez haurren arretarako haurreskolak irailera arte ez zituela zabalduko iragarri eta astebetara, ekainaren 8an, oraindik ere alarma egoeraren 3. fasean

egonik, haurreskolen irekiera baimendu zuen”.

Sindikatuaren ustez, erabaki honekin “berriro ere” interes ekonomikoak jarri dituzte hezkuntza-komunitateko partaide txikienean, hezitzaileen eta, oro har, herritarren segurtasunaren aurretik. “Eusko Jaur-laritzak hezkuntza sistematik kanpo utzi du berriz ere 0-3 zikloa, eta irizpide pedagogiko eta haurren zein langileen ongizatearen ginetik, interes ekonomikoak lehenetsi ditu”, diote. Sindikatuek itzulera-plana adostua izan behar dela pentsatzen dute.



**FUNEUSKADI**  
Grupo Asistia

**FUNERARIA MUGICA**  
Funeruskadi

**TANATORIO EIBAR**

**TANATORIO CREMATORIO ELGOIBAR**

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951  
[www.funeuskadi.com](http://www.funeuskadi.com)

Eibar: Otaola, 27	Elgoibar: Xixillon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)
Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20	Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao  
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

**KARLOS**  
carnicería  
harategia

**Jarduera betean dagoen  
HARATEGIA TRASPASATZEN da**

**INTERESGARRIA, MERKEA  
ETA HIRIGUNEAN**

**Juan Gisasola, 8**  
943-203982 (09:00etatik 14:00ak arte)



## Igerilekuak uztailaren 1ean zabalduko dituzte, baldintzekin

>>> Kirol Patronatuak eta Udalak aurreko astearen amaieran zehaztu zituzten kirol instalakuntzak berriz zabaltzeko arau eta baldintzak eta, besteak beste, kanpoko igerilekuak uztailaren 1ean zabalduko dituztela eman zuten jakitera alkateak eta Felipe Zamakola Kirol Patronatuko zuzendariak. Osasuna eta segurtasuna bermatu ahal izateko hartutako neurriek nabarmen eragingo diete erabiltzaileen ohiturei. Izan ere, bakarrik Kirol Patronatuko bazkideek izango dute insta-

lazioak erabiltzeko aukera eta, gainera, aurretik hitzordua eskatuta, telefonoz edo, bestela, laster aurkeztuko duten mugikorretarako aplikazioaren bitartez. Kanpoko igerilekuetan gehienez 100 lagun inguru egon ahal izango dira aldi berean eta bakoitzak, gehien jota, ordu bi eta erdi eman ahal izango ditu bertan. Hitzordua hartzeko orduan hainbat ordugegi emango dituzte aukeran, "jendea sarrean edo irteeran ez pilatzeko. Familia-unitateak elkarrekin joan ahal izango dira".

## "Txontan deskonfinamendua" garatu dute auzoko bizilagunek

>>> La Plazoleta Txontako bizilagunen elkarteak "Txontan deskonfinamendua" izeneko proiektua garatu du konfinamenduak iraun duen bitartean. Diotenez, "pertsoneia desberdinen bitartez, normaltasun berrira bueltatzeari ikusgaitasuna eman nahi izan diogu. Pertsoneia horiek deseskalatze fase bakoitza irudikatu dute eta, kasuaren arabera, eskertu, zoriondu, salatu eta oroitarazteko arduradun izan dira". Oraingo fase honetarako aukeratu duten pertsonaia E.T. da.



## Andretxean aurrez aurreko arreta ematen hasi dira

>>> Alarma egoeran itxita egon ondoren, Andretxeak aurrez aurreko arreta zerbitzua eskaintzeari ekin dio berriz. Astelehenetik barixakura 08:00etatik 15:00etara egongo da zabalik, eta 943 700 828 telefonora deituta edo andretxea@eibar.eus helbidera idatzita hitzordua hartu beharko da.





# AMAÑA

FONTANERIA

- KALEFAKZIO INSTALAZIOAK
- SUKALDEAK ETA BAINUAK
- GALDARA ETA BEROGAILUEN INSTALAZIOAK
- BUTANO, PROPANO ETA GAS NATURALAREN INSTALAZIOAK
- AZTERKETA ETA PROIEKTUAK ORDENADOREZ
- AIRE EGOKITUA

T. Anitua 12  
Telefona. 943 201 930  
fonta.amana@gmail.com



# trinmer

Telekomunikazio  
Instalaziorako  
Enpresa  
1.305 zka.

TB seinalea jasotzeko  
antena-instalazio profesionalak  
Satelite bidezko TB / TB digitala  
Teledistribuzioak  
Konponketak eta mantenimendua



www.trinmer.com

Ego-Gain, 2 Bac • Tel: 943 127 350





## AUTUAN

### ZALDIBAR ARGITUK MAHAIA IPINIKO DU MARTITZENEAN

Zaldibar Argitu plataformak ez dio lanari laga eta, Eitzaga auzoko zabortegia-ren hondamendia gertatu zenetik laster bost hilabete beteko direla-eta, berriz ere kalera irten eta herritarrak mobilizatzeko antolatzen dihardute, beste behin gertatutakoa argitzeko eta erantzukizunak eskatzeko. Bien bitartean, Sanjuanetan ere hor izango dira, jendeari gertatu dena gogorarazten eta luizian desagertu ziren Alberto Sololuze eta Joaquin Beltran oraindik han daudela ahaztu ez dadin. Ekainaren 23an, San Juan bezpera dela aprobetxatuta, Untzagan mahaia ipiniko dute 18:00etatik 20:00etara, plataformaren banderak eta txapak saltzeko.



## Hautesleku batzuk tokiz aldatu ditu Udalak

>>> Udalak jakinarazi duenez, uztailaren 12ko hauteskundeei begira hautesleku batzuen ohiko kokapena aldatzea erabaki du, "hautesleen segurtasuntarteak bermatzeko eta sarreak eta irteerak errazteko zirkuituak ezartzeko". Aldaketek Amañako dorreetan dauden mahaiei, Amañako parrokiako lokaletan daudenei, Egogain

gerontologikoan daudenei eta Coliseo antzokiko mahaia batzuei eragingo die.

Hala, Amañako dorreetako bi mahaia eta auzo horretako parrokiakoak Amañako ikastetxera joango dira (Artegieta 6 zenbakia). Ego Gain gerontologikoko mahaian kasuan, Torrekuaoko osasun-zentrorra joango dira. Eta, azkenik, Coliseo an-

tzokiko ohiko mahaia bietatik, 2. barrutiko 5. sekzioari dagozkionak Untzagako Jubilatuen etxera joango dira.

Zehazki, Coliseo antzokiko mahaian aldaketak eragina izango du onodrengo kaleetan erroldatutako hautesleengana: Legarre (bakoitiak), Aldatze (osoa), Ardantza (osoa), Arratebide (2 zenbakitik 24ra), Mekola (osoa) eta San Juan (osoa). Lehen Coliseoan botoa ematen zuten gainerako bizilagunek toki berean emango dute botoa.

**GURIA**  
**ELECTRICIDAD**  
MUNTAIA ETA PROIEKTU ELEKTRIKOAK

Matxaria, 2 - Pabellón 7 - Telf. : 943 70 08 95 - Fax: 943 82 00 27  
www.electricidadgurria.com - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)

**Arregi - Dominguez**  
**ARRAINDEGIA**

Bidebarrieta, 4  
943 20 11 38

Ego-Gain, 9  
943 20 32 09

Elkarrekin  
lortuko dugu

**Mariskoak**  
Arrain freskoa eta izoiztua  
Enkarguak hartzen ditugu  
Ondarruko arraina



## Orain dela urtebete horrelakoak ginen

Minbiziaren kontrako Eibarko I. Martxa Solidarioa egin zen, Amaña es la Caña elkarteak antolatuta. 500 jokalaria, prestatzaile eta senide baino gehiago bildu ziren Astelenan SD Eibar Fundazioak antolatutako jaian. "The Wolves" izenburuko kale-ikuskizunak giro berezia sortu zuen herriko kaleetan. Paila-zoekin agurtu zuten kurtsoa ...eta kitto!-ko Gurasoak Berbetan eta Ongietorri programek. Guatemalako Santa Cruz de la Lagunako familiei laguntzeko WeWant musika jaialdia egin zen. Mikel Orbeak irabazi zuen junior mailako Sanjuanetako txirringularitza Sari Nagusia. Rugby Taldekoen XVII. Garagardo feriak jendetza erakarri zuen azken egunera arte.

**Argazkiak:** 1- "The Wolves" kale-ikuskizuna. 2- Minbiziaren kontrako Martxa Solidarioa. 3- Garagardo Feria. 4- Eibar FTko harrobiaren jaia. 5- Junior mailako San Juan Saria. 6- Gurasoak Berbetan eta Ongietorri programen kurtso amaiera.



1



2



3



4



5



6





# IRAZABAL

clínica dental



**Ainhoa Zulueta**  
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.  
**Euskal Herriko Unibertsitatea.**  
Unibertsitate Adtua Aho Kirurgian,  
Periodontzian, implantologian.  
**Leongo Unibertsitatea.**  
Diplomatua Aho Kirurgian.  
**Bartzelonako Unibertsitatea.**  
Hortz-Estetikan Diplomatua.  
**Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.**  
Hortz-Estetikan Diplomatua.  
**Autran Institutoa. Bartzelona.**  
Etengabeko Formakuntza.  
**New York-eko Unibertsitatea.**  
Oklusioan Graduondoa.  
**Anibal Alonso Doktorea.**

**Astelehenetik ostiralera:**  
**8:00**etatik **22:00**etara  
**Zapatuetan:**  
**10:00**etatik **14:00**etara

## Irribarreetan adituak

### Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

JARRAI IEZAGUZU

 Facebooken: Clínica Dental Irazabal [www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com)



**IRAZABAL**  
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - **20600 EIBAR**  
Tel.: 943 20 85 52 - [www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com)

# zarelakopara

<<< ...eta kitto! Euskara Elkarte >>>

## “Normaltasun berri horretan euskeraren normalizazioa bera ardatz izatea nahiko genuke”

Ez dakigu gure lehengo bizimodura itzuliko garen edo bizitzen ari garen hau betiko geldituko den. Baina gure lehengo bizimoduarekin amesten jarraitzen dugu, non hurbiltasuna, belarrira egindako konfidentziak, laztanak eta besarkadak egunerokotasuna ziren. Bien bitartean, egoera berrira egokitzeke, duela hilabete batzuk pentsaezinak ziren aldaketak eta estrategiak erabiltzen ari gara. Moldatzen, egokitzen eta etengabe aldatzen den egoera berrira ohitzeko saiakerak egiten.

**B**aina egoera ez da erraza inorentzat, gauza eta pertsona asko gelditu dira bidean eta, horrekin batera, baita ilusioak, egitasmoak... ere. Hala ere, beste era bateko etorkizuna irudikatu nahi dugu; ahultasunak eta gabeziakhobetzeko aukera moduan hartu behar ditugu eta elkartasunak beste era bateko gizartea ahalbideratuko digula pentsatu behar dugu. Azkenaldian hainbestetan entzun dugun “normaltasun berri” horretan euskeraren normalizazioa bera ardatz izatea nahiko genuke, eta ez zokoratutako gai bat.

Hala ere, egoera honi ere gauza on asko atera diezaz-

kiogu: zenbat ikasi dugun denok! Eta zeinen gauza ederra den IKASTEA, gauza berriak egitea, modu berriak arakatzeta eta ezezaguna den itsaso zabalean gogotsu arraun egitea. Baina oraingoan itsasoak irentsi egin gaitu.

Zuei bezala ...eta kitto! Euskara Elkarteari ere itsaso zabal honetan arraun egitea egokitu zaio. 28 urte dituen elkarte honi tokatu zaizkio itsaso zakar, olatu handi eta enbata ugari! Eta, kostata, zauriekin edo txalupa apur bat hondatuta, baina onik irtetea lortu dugu. Baina oraingoan tsunamia etorri zaigu, eta ez dugu ikusi zetorrela... Txinako urrutiko itsasoan gertatutako lu-

**"Zuei bezala ...eta kitto! Euskara Elkarteari ere, itsaso zabal honetan arraun egitea egokitu zaio"**

rrikararen osteko tsunamiak gudan eraginik izango ez zuela pentsatu genuen denok. Baina lurreko plaka tektonikoren bat mugitzen denean besteak ere mugitzen dira eta tsunamiak nonnahi ager daitezke. Eta ez hori bakarrik, lurrikarak daudenean eta tsunamiak sortzen direnean erreplika egoteke arriskua ere izaten da eta hor gabiltza denok, tsunamien hondamendia konpondu nahian, eta itsasoari begira, ia erreplika noiz eta nola etorriko zaigun beldur.

Bien bitartean, lehendik genekienarekin, ikasi dugunarekin eta ikasteko falta zaigunarekin aurrera egitea besterik ez dugu.





...eta kitto! Euskara Elkarteak lantaldea zuekin batera aurrera egiteko prest.

## "Euskalgintzaren egoera berez prekariora zen aurretik ere; eta, krisialdiek egin ohi duten bezala, agerian laga ditu gure ahultasun guztiak"

Aurretik esan izan dugun bezala, ...eta kitto! Euskara Elkarteak bizi duen egoera larria da. Tamalez, euskalgintza osatzen dugunok itsasertzetik gertu dauden etxeetan bizi gara, hondartzara edo itsasora doan edonorekin gertu-gertuko harremana dugu, baina itsasoarekiko gertutasun horrek eta eraikuntza xumeak izateak babesik gabe laga gaitu tsunamiaren aurrean.

Euskalgintzaren egoera berez prekariora zen aurretik ere; eta krisialdiek egin ohi duten bezala, agerian laga ditu gure

ahultasun guztiak, eta, orain, "normaltasun berrian" bizitzea egokitu zaigu. Baina zelako normaltasunaz ari gara euskera alboratuta gelditzen bada?

Orain arteko ibilbidean zurekin batera arraun egiten aritu **ZARELAKO** gara bidaiari, eta egoera honetan hauspoa ZARELAKO ez daugarra amatatu.

Zure ekarpena ezinbestekoa da elkartearen lan ildoetarako eta euskera alde batera ez gelditzeko. Gure bazkidea **ZARELAKO** gara elkarte bizia. ■

NORK	EKARPENA	ERRENTAN ITZULKETA	Benetako kostua
Urteak (16 urtetik beherakoak)	5 €	1,5 €	3,5 €
Ikasle, langabetu, jubilatuak	15 €	4,5 €	11,5 €
Langileak	45 €	13,5 €	31,5 €
Beste ekarpen batzuk	150 €	45 €	115 €

\*URTEKO kopururak dira

## zueiesker...

...eta kitto! aldizkaria 1988. urtean sortu zen eta hasierako hiru urtetan Eibarko Udalak banatzen zuen kiosko eta leku publikoetan, zuri-beltzean eta tabloide formatuan.

1992. urteaz geroztik ...eta kitto! Euskara Elkarteak hartu zuen bere gain aldizkaria kaleratzeko ardura; hasieran, hamabostero hasi ziren aldizkaria Eibarko buzoietan banatzen, baina 1994an ekin zioten asteroko zabalkundeari.

Hogei urteko ibilbidea eta gero, 2008. urtean astekaria zuri-beltzetik koloretara pasatu zen eta astekariari buruzko lehen ikerketa egin zen. Jasotako datuen arabera, Eibarren irismenik handiena zuen hedabidea zen ...eta kitto!, eta euskaldunek ezezik erdaldunek eta elebidunek ere aldizkarian idatzitakoa jarraitu eta ulertzeko ahalegin berezia egiten zutela ondorioztatu zen.

Orri kopurua handitzeaz gain, atalak berritzen eta egokitzen joan gara urtero, eta webgunek eta sare sozialek, bereziki, pisua hartzen joan dira. 2018an egin genuen hedabideen gaineko azken ikerketak horrela baieztatzen du; izan ere, herritarrek hamar urte lehenago egindako ikerketan baino hobeto baloratzen dute astekaria gaur egun; irismena ere handitu egin da, batez ere euskaraz aritu ez baina ulertzeko gaitasuna dutenen artean. Era berean, sare sozialak gure hedabideetara heltzeko modurik erabilienetarikoa direla ere egiaztatu zuen azterketak.

Gaur egun 36 orrialdeko astekaria banatzen da astero, bizi-lagunak dituzten ia etxebizitza guztietako buzoietan.



## Herri-ekimeneko beste euskal hedabideetan gertatu den bezala, pandemiaren ondorioak nabariak dira gurean ere.

Gure lana ez da eten eta informatzen eta entretenitzen saiatu gara momentu oro, herriko gertakarien berri emanez zein herritarrei beharrezkoa zitzaieen informazioa eta deialdiak luzatuz. Inoiz baino emaitza hobek izan ditugu azkeneko hilabeteetan, sare sozial eta webguneko bisita kopurua izugarri handitu da, aldizkariaren diseinua berritu eta erabilgarriago eta modernoa egin dugu. Emaitza ekonomikoa ordea oso beste era batekoa izaten ari bada ere, zuen babesarekin aurrera egingo dugu.



## Berbetan mintzapraktika-programako kideen ikasturte amaierako ekitaldia

>>> Ikasturte berezia izan da aurtengoa Berbetaneko kideentzat. Normaltasunez hasi genuen ikasturtea, baina martxoan osasun-alarma ezarri zenean ordura arte aurrez-aurre egiten ziren mintzapraktika-saioak online izatera pasatu ziren. Talde desberdinetako kideak elkartzeko eta euskarazko harreman-sareak osatzeko baliagarriak izaten

diren ekintza osagarriak (irteerak, hitzaldiak...) ere alde batera laga behar izan ditugu; horien ordeztu hainbat jarduera egin ditugu online, lehiaketak...

Norbere taldean, hau da, parte-hartzaile bakoitza bere ohiko taldearekin aurrez-aurre elkartzeko hasita bazegoen ere, ez dute eguaztenera arte beste talde batzuetako kideekin elkartzeko aukera izan.



Guzti-guztiak ezin izan ziren batera elkartu, osasun-neurriak errespetatu behar ziren-eta, baina berdinean izan zuten aukera aurrez aurre berba egin eta ikasturte berezi honek eman dituenak partekatzeko. Primerako giroan eman zuten eguazten arratsaldea.

Udazkenera arte, bada, agur esan diote mintzapraktikari berbalagunek. ■

## Euskal garagardodastaketa egin zen martitzenean

>>> Aurreko martitzenean Illunabarrian programako konfirmenduaren osteko lehen aurrez-aurreko saioa antolatu ahal izan genuen. Osasun-neurri guztiak hartuta eta aforoa murriztuta 12 lagun batu ziren ...eta kitto!-ren egoitzan. Euskal garagardodastaketa saioan Boga kooperatibako kideek garagardo naturala nola egiten duten azaldu zuten; artisau eran egiten dute eta bertako osagaiak erabiltzen dituzte, kalitatezkoak. Bertoko hornitzailei lehenetsia ematen dietela ere nabarmendu zuten, eta Mungian duten ekoizpen-fabrikara hurbiltzeko gonbitea egin zieten ...eta kitto!-n elkartu ziren parte-hartzailei. Batzuek, gainera, garagardoa erosteko aukera izan zuten dastaketa-saioan bertan. ■





## # ANDER OSORO Erasmusa Alemanian #



# “Alemanek bere kabuz hartu zuten konfinatzeko erabakia”

Ander Osoro martxoaren 1ean joan zen Nienburg-Weserrera (Alemania) Erasmusa egitera. Orduan ezin zuen imajinatu COVID-19ak eragindako pandemiak mundua hankaz gora utziko zuela. Hiru hilabete egin ditu han, ekainaren 1ean itzuli zen Eibarrera, eta aldea igarri du han eta hemen pandemiari aurre egiteko hartutako erabakietan eta jarretan. Ez da amestutako Erasmus esperientzia izan, baina gustora ibili da.

### Nola izan duzu Alemaniara joateko aukera?

Elgoibarko MEKAN Makinerien Elektromekanika ikasketak egiten dihardut eta Nienburg-Weserreko traktore enpresa batean praktikak egiteko aukera izan dut.

### Alemaniara heldu eta berehala jarri zen mundua hankaz gora. Nola bizi izan zenuen?

Hara heldu nintzenez ia ez zen berba egiten COVID-19ari buruz, baina Italia eta Espainiatik berriak iristen hasi ziren eta Alemanian kasuak agertu ziren.

### Nolako neurriak hartu dituzte Alemanian?

Hasieran ez zen konfinamendua ezarri. Italian eta Espainian gertatzen zena ikusita, jendeak bere kabuz hartu zuen konfinatzeko erabakia, inork agindu gabe. Angela Merkel presidentek esan zuen herritarren %70 kutsatu egingo zela eta, beldurra zabaldu zenez, jendea etxean geratu zen. Jendea asko kontzientziatu da osasun- eta segurtasun-neurriekin. Maskarak edonon aurkitu zitezkeen eta dendetan, adibidez, sartzen zen jendearen erregistroa egiten zuten, positibo emanez gero bere arrastoa hobeto jarraitzeko. Horrela errazagoa da 0 pazientea aurkitzea.

### Nienburg-Weser inguruan jende asko kutsatu da?

Ez, oso gutxi. Nienburg-Weser distrituak 127.000 biztanle inguru ditu eta 70 lagun inguru bakarrik kutsatu dira. Etxean egon dira ondo kontrolatuta. Landagunea da eta jendeak ez du asko bidaiatzen. Jendea ba-

serri antzeko etxeetan bizi da, etxe indibidualetan, eta gutxi dira.

### Herrialdeen arteko mugak itxi zirenean etxera itzultzeko aukera izan zenuen?

Bai, baina han geratzea erabaki nuen. Eibarrera joanez gero etxean sartuta egon beharko nintzen eta, gainera, ezin izango nintzateke Alemaniako traktore enpresa horretara itzuli. Oso gustora nebilen han.

### Lanean ez duzue jarduna eten?

Lehen sektorearekin zerikusia duen enpresa denez, egunero ibili gara lanean. Traktoreen bat konpontzera irten behar ginenean nolabaiteko errespetua ematen zidan.

### Familiarengandik hainbeste kilometrotara egonda, arduratuta egon zara?

Aitxarekin arduratuta nengo. Zerbait gertatu izanez gero ezingo nintzelako etxera itzuli. Familiako beste kideengatik lasai negoen, gauzak ondo egiten ari zirela banekielako.

### Nola egin dute deseskalada Alemanian?

Baina deseskalada baino eskalada hasi da han, kasu berriak agertu direlako.

### Zer moduz itzuleran?

Aireportuan koarentena egitea gomendatu ziguten, baina ez derrigortu. Lagunekin egon naiz, baina 15 egun itxaron ditut arrisku egoeran dauden pertsonekin egoteko. Hasieran harritu egin nintzen kalean hainbeste jende ikusteaz, Alemanian ez zebilen inor.

**CENTRO OM ZENTROA**  
Zezenbide, 6 - D lokala - EIBAR -  
943 208 324 www.centrodenaturopatia.es

- Osteopatia
- Emozio kudeaketa
- Teknika energetikoak
- Kiromasajea / Reflexologia
- Meditazioa
- Reiki eta mailak

**NATUROPATIA:**  
Felipe Arnaz Escudero

2075  
koagutuz

Errebal, 16

**umeda**

943 203 164



Udalaren webgunean eta YouTubeko kanalean ikusi daiteke elkarrizketa. EIBARKO UDALA

<<< LOREA ARAKISTAIN ETA ASIER SARASUA • Ingurumen Jardunaldiak >>>

## “Hegaztiak hobekuntzen eta galeren adierazle dira”

Lorea Arakistain kazetariak Asier Sarasua biologoari egindako elkarrizketa batekin eman zien hasiera Eibarko Ingurumen Jardunaldiei. Ixua hotolean elkartu ziren, txorien kantuez inguratuta, eta hegaztien inguruan egin zuten berba. Elkarrizketa Eibarko Udalaren webgunean eta YouTube kanalean dago ikusgai.

### Ez dugu imajinatu nahi txori bariko mundu bat, baina gerta liteke?

Uste dut eta espero dut ezetz, epe motzera ez behintzat. Baina egia da datu batzuk kezkarriak direla. Gure inguruko espezie askoren populazioak jaitsi egin dira azken 30 urte inguruan eta lehen hemen ikusten genituen espezie asko orain ez ditugu ikusten. “Lehen kalandriekin zerua baltz”, esaten zidan jendeak, eta orain zerua ez da beltz ikusten sekula ere.

Eta gero, aldaketak ikusi dira. Adibidez, lehen Afrikan kumatzen zuten hegaztiak igotzen hasi dira, Europarantz. Enara ipurgorriak, esate baterako, Iurretan kumatzen du eta hori orain dela 30 urte ezinezkoa zen. Harkaitz-zozoak mendietan bizi dira eta gero eta gorago doaz, baina mendien altuera amaitu egiten da eta ez dute non bizi. Beste hegazti batzuek migrazioak aldatu dituzte. Beraz, populazioak jaitsi egin dira eta populazioen dinamikak al-

datu egin dira, eta datuak kezkarriak dira.

### Itxialditik atera berri garenez, txorien txioak gehiago entzuten ditugu orain?

Baietz uste dut. Giltzapean egonik gure irtenbide bakarrak pantailak edota leihora edo balkoira irtetea izan dira. Bestetik, gure kutsadura eta trafikoa jaitsi egin direnean hegaztiak kolonizatuta genituen tokietara etorri dira eta euren txioak hobeto entzun

ditugu, baita kilometro batera zeuden txorienak ere.

### Txoriak libre ibili dira eta gu kaiolan. Harkaitz Canokitxialdian esan zuen gure etxeek txori-dendak ematen zutela, balkoiak kaiolak eta gu barruan kantari, itxuraz pozik, baina beno... Metafora polita da.

Bai, eta halaxe egon gara. Kardantxiloak kaioletan edukitzen ditugu, kantuan, gure ustez pozik, baina azken baten kaio-



lan preso. Orain gu egon gara preso eta eurek libreago.

### **Txorien inguruko ezagutza galdu egin da, ezta?**

Alde batetik, baietz uste dut. Baina ez txorien kasuan bakarrik, baita naturarekin eta baserriarekin zerikusia duten gauzen inguruan ere (zuhaitzak, baserrietako tresnak, letxugak zelan landatzen diren...). Lehen gauza horrek jende askoren eguneroko ezagutzak ziren eta orain naturatik banatu gara, hiritartu egin gara, eta horrekin batera ezagutza eta lexiko guzti hori galdu dugu. Beste alde batetik, orain dela 25 urte txoritan hasi nintzenez oso jende gutxi genbiltzan Euskal Herrian ornitologiaren alorrean eta orain izugarria da kopurua zenbat ugaritu den, ehun aldiz gehiago. Jende gaztea ere oso zalea da eta asko daki, eta horrek egin duena da Euskal Herrian bizi diren txorien ezagutza asko handitzea. Lehen ikusten ez ziren espezieak ikusten dira gaur egun, eta ez da espezie gehiago dagoelako, lehen identifikatzeko gai ez ginelako baizik.

**Lexikoa aipatu duzu lehen. Esaten da izena duena bada eta izenak biltzen ibilizar urtetan. Zenbat txori mota ditugu Eibar inguruan?** Eibar ez da Euskal Herriko tokirik onena txoriak ikusteko. Mundu mailan 10.000 txori-espezie daude eta Europan %10a dago, hau da, 1.000. Euskal Herrian 300-400 espezie ditugu eta Eibarren 60-80 ikusi daitezke. Ez da asko mundu mailan kokatuta, baina ez da gutxi ere.

**Eibarren txoriak ikusi nahi dituenak nora jo beharko luke?** Eibarren ez dugu hezegunerik, mendi alturik, landa-eremu zabalik... Beraz, gehienak baserri inguruan edo basoetan eta zuhaitzietan bizi diren espezieak dira. Hala ere, badugu gauza on bat, Eibartik irten eta berehala hainbat tokitara joan gaitzkeela. Euskal Herria



## **"Eibarren berdeguneak behar ditugu, ez dugu benetako berdegunerik"**

Europako toki onenetakoa da txoriak ikusteko. Migrazio toki egokia da eta hain txikia izanda aniztasun dezente du: mendiak (Pirinioak), hezeguneak (kostaldea) eta Bardeak bezalako toki berezi bat. Beraz, Eibarren ez baditugu hegazti asko ikusten, hemendik hurbil Txingudi, Urdaibai eta Bardeak bezalako tokiak ditugu. Toki egokian gaude txoriak ikusteko.

**Munduan gero eta jende gehiago bizi da, gero eta industrializatuago eta urbanizatuago dago dena, eta natura eta hiria bereizteko joera dugu. Hala ere, gu ere naturaren parte gara eta aditu batzuek diote txorien dibertsitatea hiriguneetan ere bultzatu beharko litzatekeela, edo hiriak sortzen edo aldatzen ditugunean txoriak hirian nola biziko diren pentsatu beharko litzatekeela.**

Asiako hiri batzuetan ikusten dira parke asko, berdeguneak (baita eraikinetan ere)... Naturak berehala aurkitzen du bidea eta aukera txiki bat ematen diogun momentuan berehala hasten da zabaltzen. Euskal Herrian bertan Donostian belatz handiak hasi dira kumatzen, adibidez. Hori bai, horrek ez du beste arazoa konpontzen. Habitatak, baso-tropikala... suntsitzen, eta Europan eta Ipar Amerikan dagoen

nekazaritza eredu estentsibo eta guztiz suntsitzailarekin jarraitzen badugu, hegaztiak ez dira hirietara etorriko eta hiriak ez dira horren ordeztuko izango. Gauza bat da hirietan hegaztiak lekua egitea eta hiri iraunkor batzuk behar ditugula ikustea (hori nabarmena izan da itxialdi honetan eta nabarmena da Eibar moduko herri txiki, estu eta oso kaletar batean), baina beste guztia ezin dugu albo batera laga.

**Herrietan gero eta txori gutxiago dago, biodibertsitate gutxiago, eta horrek osasunean eragingo digu. Txoriak gure osasunaren adierazle direla esan ohi da.**

Bai, gehien bat espezie jakin batzuk. Erreketan ikusi da hori, azken 30-40 urteetan hobera egin duen gauza bakarrenetakoa izan da. Gazteak ginenean Deba ibaia kolore ezberdinarekin jaisten zen eguneroko. Errekak hobetu diren momentuan erreketako fauna bueltatu da. Hegaztiak hobekuntzen eta galeren adierazle dira.

**Txori-espezieen %40 populazioa galtzen ari dela esaten da. Beraz, horren aurrean adibide edo datu on batzuk aurkitu ditzakegu zenbait tokitan.** Gure inguruan erreketako espezieak dira adibide bat, baina

badaude gehiago: lehen hemen ikusten ez genuen okilbelta (Pirinioetako espeziea zen) Eibarren eta Mallabian ikusten dugu orain, adibidez. Lehen ez zeuden edo mehatxatuta zeuden espezieak izan dira gehien igo direnak. Babestu eta zaindu egin dira, eta jaitziera eten egin da. Bestalde, espezie arruntetan kopurua beheraka joan da. Itsas-hegaztietan oso begi-bistakoa izan da hori. Kalkulatzen da Europako itsas-hegaztien espezieen %70-75 desagertu egin dela azken 30 urteetan (plastikoak jaten dituztelako, arrantza estentsiboarengatik, kostaldea urbanizatu denez kumatzeko tokirik ez dutelako...). Landa eremuetako hegazti-espezie asko ere desagertzen ari dira. Beraz, gutxi batzuk igo egin dira, baina egoera orokorrean kalterako izan dela esango nuke, Europan eta beste toki batzuetan behintzat.

**Zer egin dezakegu Eibarren hobera egiteko edo, behintzat, okerrera ez egiteko?**

Hegaztien kasuan arazoa normalean ez da lokala, hegaztiak ez daudelako geldirik. Asko mugitzen dira, eremu zabala dute eta migratzaileak dira. Hegazti kopurua jaisten denean ez dakigu zergatik jaisten den. Hemen ez duelako zer jan? Ez duelako bizi izateko habitat egokirik? Edo migrazioan demaseko ehiza dagoelako? Hegaztien kasuan zaila da erabaki lokalak hartzea. Erabaki orokor moduan, esate baterako, Eibarren berdeguneak behar ditugu. Ez dugu benetako berdegune bat, ezta Txaltxa Zelaia edo Amañako pasealekua ere. Egunen batean berdegunerik egingo da? Ez da erraza. Eibar zulo txiki bat da, laugune gehienak erreka gainean daude... Baina imajinario pixka batekin hobera egin daiteke. Adibidez, orain gero eta eremu gehiago dihardute eskaintzen oinezkoentzat. Ea gutxika-gutxika berdeguneetarako ere jarrera txiki bat hartzen den.



Marisa Cid

Marisa Cid

## Maskotak oporretan

Datuak oso larriak dira: Espainiako estatuan 104.000 txakur eta 33.700 katu abandonatzen dituzte urtero, Affinity-ren ikerketa baten arabera. Datu larriak direla diot, ez bakarrik halako basakeria egiteagatik, printzipiorik eta bihotzik gabeko gizarte adierazteagatik ere bai.

Txakur edo katuak etxera eramaten ditugunean ardura handia hartzen dugu. Animaliak, gure etxean, umeak bezalakoak dira, eta gure menpean egongo dira, bai jateko, baita beren osasuna babesteko ere. Menpekotasun horrek bizi osoa iraungo du; bezaraz, etxeko animalia hartu baino lehen, pentsatu beharko genuke ea beren beharrak asetzeko prest gauden hamar, hamabost edo hogeitaz urtez.

## “Ahulenei ematen zaien tratu motaren arabera neurtzen da gizarte baten aurrerapena”

Animaliek, lehenengo momentutik, leialtasuna ez ezik, alaitasuna eta adiskidetasuna ere eskaintzen dizkigute. Berdin zaie politikak ala itsusiak garen, umore on ala txarrez sartzen garen etxera; haiek, beti, pozik azalduko dira ikusten gaituztenean. Eta hori nahikoa ez balitz, beren leialtasuna betiko izango da. Horregatik, inoiz ez ditut ulertuko animaliak abandonatzen dituztenak.

Aitortu behar dut animalien zale amorratua naizela. Txakur bat eduki nuen hamahiru urtez; hilabete eskas zuen etxera eraman nuenean, eta gure familiaren beste kide bat izan zen hil arte. Oporrak berarekin antolatzen genituen: animaliak onartzen dituzten hoteletara edo kanpinetara joaten ginen.

Gaur egun katua daukat, hamalau urte beteko ditu laster. Ezagutu genuenean, txiki-txikia zen; kale gorrian zegoen; abandonatuta eta etorkizun beltz samarra zuen aurrean. Baina ez zen beldur niregana hurbildu zenean, jendearen artean bizi izan zela konturatu nintzen berehala. Hartu nuen, etxera eraman eta esan nion: “Lasai egon txikitxo, hemendik aurrera baduzu familia eta etxea, eta zin dagizut inoiz ez zaitudala abandonatuko”. Eta hemen dago, nire alboan, orri zuri hau betetzen laguntzen.

Abandonuaren arazoa konpontzeko neurri zorrotzagoak indarrean jarri beharko genituzke. Ez da arazo hutsala, nire aburuz; besteak beste, ahulenei ematen zaien tratu motaren arabera neurtzen delako gizarte baten aurrerapena.

marisacidgibaja@gmail.com



Pedro Alberdi

Pedro Alberdi

## Erantzukizun politikoa

Hiztegiaren arabera, *erantzukizuna* eginbide edo obligazio bat da, erantzule izatetik datorrena; eta hala, obligazio hori betetzen duenaz pertsona arduratsua dela esaten dugu, eta hura betetzen ez duenaz, arduragabea, ganorabakoa edo txoropittoa. Hitza bera ez, baina kontzeptua oso zaharra da, betidanikoa, gizakia gizaki denez gerokoa. Erantzukizun politikoa, ostera, oso lotuta dago gobernu-jardura zuzenarekin, eta zuzentasun horrek esfortzu bikoitza eskatzen du: alde batetik, erabateko gardentasun, zorrotzasun eta zehaztasunez jardutea, eta bestetik, irregulartasunik gertatuz gero, bizkortasunez, eraginkortasunez eta sendotasunez jokatzeari; beste modura esanda, barkaezina litzatekeela kudeaketa publikoaren ardura duen pertsona bat kontrol-sistemez axolagabetzea edo erdipurdiko ikuskaritzak onartzea.

Guztiarekin, gurean ere txakurrak ortozik, eta ez dago Sherlock Holmes izan beharrik Zaldibarko zabortegian irregulartasunak izan direla baieztatzeko”

Egindako okerraren emaitza lazgarria da oso: inoizko ingurumen-katastroferik larriena, eta bi behargin, Alberto Sololuze eta Joaquín Beltrán, lau hilabete baino gehiago desagerturik. Haien gorpuak, halere, ozenki mintzo dira zabor azpitik, eta akats handiak salatzen dituzte hondamendiaren kudeaketan; besteak beste, erantzukizun politikorik eza. Beste modura jokatzeko zuten, alajaina, lehengo buruzagi jeltzale eta sozialistek! Toribio Etxebarria, esaterako, 1934ko urriaren 5eko arratsaldean, Eibarren matxinatutako ordezkaririk, bandera zuri bat hartu, eta goardizibilen koartelera joan zen errenditzera, PSOEko piztutako iraultzak –piztu bezain laster amatatua– porrot egina zuela egiaztatu ostean. Juan Ajuriagerra, berriz, PNVko agintari goren, 1937ko abuztuaren 23an, Biarritzeko hegazkina hartu, Laredoko hondartza lurreratu, eta Euzko Gudarostearen buru jarri zen, euskotarrak italiarrei errenditu zitzaizkienean. Haiek ez ziren ezkutatu, ezta ihes egin ere; aitzitik, aurpegia eman zuten, eta euren karguaren erantzukizunari eutsi. Biek ere larrutik ordaindu zuten kolektiboarekiko atxikimendua, –atxilotuak ez ezik, heriotza-zigorrekin kondenatuak izan ziren–, baina hori beste kontakizun bat da. Hitz gutxitan: buruzagi haiek etika bat zuten, jendartearekiko konpromisoan oinarritutako etika bat; egungo zenbait agintaririk, aldiz, ez dute erakusten jubilatuko batek baino ardura handiagorik lanarekin.



## JAI EGITARAUA

### EKAINAK 23, MARTITZENA

**11:00etan:** San Juan Zortzikoa, Usartza Txistulari taldearen eskutik. Udaletxeko hall-ean (aurrez aurreko publiko barik) eta zuzenean Eibarko Udaleko YouTube-ko kanalean.

**13:00etan:** Lizarrako dultzaineroen emanaldia udaletxeko hall-ean (ekitaldi instituzionala, aurrez aurreko publiko barik) eta zuzenean Eibarko Udaleko YouTube-ko kanalean.

**20:00etan:** Lisker.

Coliseo antzokian, gonbidapenarekin\*, eta zuzenean Eibarko Udaleko YouTube-ko kanalean.

### EKAINAK 24, EGUAZTENA

**20:30ean:** Kezka Dantza Taldea.

Coliseo antzokian, gonbidapenarekin\*, eta zuzenean Eibarko Udaleko YouTube-ko kanalean.

\*Gonbidapenak Coliseoko leihatilan, ekainak 19 eta 22an, 17:30etik 19:30era.



**GOIKO LUZ**

... aurrera!



**ARGI-DENDA**

www.goikoluziluminacion.com  
943 200 883  
Otaola etorbidea, 13 EIBAR

info@gerritek.net  
www.gerritek.net

**SOLUZIO INFORMATIKOAK**

Marka guztietako zerbitzu teknikoa eta salmenta

Neurrira egindako software-aren garapena



Txaltxa-Zelai, 4-6 Tel: 943-033892

&lt;&lt;&lt; JABI ZABALA • Lisker taldea &gt;&gt;&gt;

# “Oso eskertuta gaude egoera berezi honetan ere joko dugulako”

Bada hamarkada batetik gora Eibarko taldeak kalerik ez duela egiten Sanjuanetan. Oraingoan ere gustora heldu diote aurtengo erronkari eta, oso desberdina izango dela jakitun badira ere, taldekideek gogotsu ekingo diote 23ko, San Juan bezperako, ekitaldiari, 20:00etan hasita.

Jabi Zabala 70eko hamar-kadan sortu zen folk-rock taldeko aurpegi ezaguna da, hasiera hartatik taldean jarraitzen duen bakarra baita. 80ko hamarkadan rock emanaldiak alde batera laga zituzten eta plaza talde bihurtu zen eta, orduetik, bide horretatik jarraitzen dute. Zabalak asko eskertzen du aurten ere jasotako gonbidapena, horrek aukera ematen dielako “gustoko konpromisoari eutsi eta kalerik ez egiteko”.

Pozik dago Jabi azken urteotan jarraitzen duten bidearekin: “Beti izan dut nahiago talde sendoa izatea, urteetan

iraungo duena. Taldekideon artean lagun giroa sortzea garrantzitsua izateaz gain, beharrezkotzat ere jotzen dudalako ia”. Azken aldian, dena dela, hainbat aldaketa izan dituzte taldean, “gazte jendea tarteko: otsailean gurekin hasi eta orain lehen entsegua egin duena ere badago, pandemiaren asuntorekin erdi geratuta egon garelako”.

Berbena bueltako erreperorioari eutsiko diote oraingoan ere, “beti ere Eibarko jendea buruan dugula. Dantzan ezingo da egin oraingoan, baina trikiti giroa presente izango dugu, Musika Eskolakoak, gaztetxe-



**GASOLEOEN BANAKETA**

**Kantoi**

20.000 L.

2.000 L.

**Otaola etorbidea, 13-Bis**

943 20 73 74  
94 671 02 77

Fermin Calbeton, 6 Tel. 943-048535

**ZELAIIA**

*Frata eta barazki freskoenak eska-eskara! Aprobetxata!!*

<p><b>GARBITU (30 min)</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ideala (9 kg.) 5€ / 4€</li> <li>- Super (20 kg) 9€ / 7,5€</li> </ul> <p><b>LEHORTU (30 min)</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ideala (14 kg.) 4€ / 3,5€</li> <li>- Super (21 kg) 5€ / 4,5€</li> </ul> <p>Zure jabola eta leungarria ekarri dezakezu edo gureak erabili!</p> <p><b>Ordubetean zure erropa garbitu eta sikatuta</b></p>	<p><b>GARBITEGIA</b></p> <p><b>Speed Queen.</b></p> <p><b>autozerbitzua</b></p>	<p><b>Ego-Gain, 15</b></p> <p>bus geltoki ondoan</p> <p>astelehenetik igandera 08:00-22:00</p> <p><b>ESKERRIK ASKO bezero guztio!</b></p>
--	---	---



koak, feministak, Pagatzakoak, herriko nagusiak... Eibar guztiak bere islada izan dezan gure kontzertuan”.

Ordu eta erdiren bueltan aurrekusten dute izango direla eszenategian piezak jotzen: “Errepertorioa nahiko itxita dugu”. Aste honetako egueanean (atzo) zuten soinu-probekin jokatu eta entsegua egiteko asmoa, aurretik Legarreko lokaletan jardun badute ere. Hain gustora izan duten Urkiko lokalari agur esan behar izan diote: “1983tik izan gara bertan. Deus Ez taldekoe-kin entseatu dugu bertan azken urteotan, baina ugazaba hil eta amaitu da, oroimen bikainak

utzi badizkigu ere. Deus Ez-ekoek Azkoitira jo dute”.

Erretiratzeko ordua ez du geratu ikusten Zabalak: “Topera, ez dut lagatzeko inolako gogorik. Deitzen ez digutenean hasiko gara horrelakoetan pentsatzen, baina lehenago zertarako?”. Eibarrekin duten lotura gogokoa dute: “Giro bikaina izaten da San Juan bezpera egun berezia ere badelako: San Juan Suak, danborradak eta gure kontzertuak gaua ezin hobeto osatzen dute. Izan ziren beste sasoi batzuk horrelako girorik ez zela sumatzen, aurreko mendeko azken hamarkadan esaterako, baina giroa berreskuratu da berriro Eibarren. Guk 04:30ak arte jotzen dugu eta jendeak ondo eusten dio”. Harreman horretaz harro daudela aitor-tzendu Jabi Zabalak. Hemendik kanpo non hartzen zaituzte hobetoen? “Arabako herri txikietan, Gasteizko jaietan ere jo izan arren. Bilboko Rekalde auzora ere oso gustora joaten gara, eta bertako Zurbaranberrin. Baina gure erreinua Araban dugu, batez ere!”. Gogoan ditu baita Bilboko Antzokian eskainitako kontzertua, “euskaltegiko jai pribatuaren barruan, lokal itxian baina kriston giroarekin, jendea dantzan geratu barik”.



Aurten Coliseoan eskainitako duten kontzertua ordu eta erdi ingurukoa izango da eta ez da, ez, 04:30ean amaituko: “21:30ean gutxi gorabehera. 30 bat ikusle izango direla esan digute, sarrerekin joango direnak”. Hori bai, errodejera botako dute faltan akaso: “Inauterietan-

rako berbena bi egin genuen, gero Zaldibarren gertatutakoarekin bertan behera laga behar izan genituen eta azken aldian pare bat entsegu besterik ez ditugu egin”.

#### Ibilbide luzeko taldea

Lisker taldeak 40 urtetik gora daramatza musika munduan Basauriko lehiaketa irabazi eta gero, diskoa grabatu zuen Xoxoa diskoetxearekin 1979an, eta Itoiz eta Errobi taldeekin askotan partekatu zuen agertokia, 80 hamarkadan rock emanaldiak laga eta plaza talde bilakatu arte.

Sasoi hartan gure herriko Jeiki eta Zima taldeetan ibilitako

## “Ordu eta erdi inguruko kontzertua izango da Coliseokoa”

SAN  
JUAN  
NAK  
2020

<p><b>EZ DA PROMOA, BENETAN EGIA BAIZIK.</b></p> <p>Eibarko PREZIORIK merkeenak... ...MARKA guztietako neumatikoetan</p> 	<p><b>Carrocerías ARANE</b></p> <p>Arane, 6 - 3. Tel. 943 70 26 20 Fax. 943 12 19 54 aranc.carrocerias@hotmail.com</p>	<p>Zure betiko KARROZERIA...</p>  <p>... orain MEKANIKA zerbitzuarekin</p>
--	--	---

<p>LENTZERIA MERTZERIA</p> <p><b>TXUKUNA</b></p> <p>Eulojo Garate, 1 943 821 308</p> <p>Zure zain egongo gara</p>				
---	---	--	---	---



musikariek sortu zuten Lisker. Jeikik folk intimista lantzen zuen eta, eskaini zituen emanaldien artean, jendetsuena Bartzelonan. Topaketa Anarkistan emandakoa izan zen, 10.000 lagunengain, eta Triana eta Iceberg moduko taldeekin osatutako jaialdian. Zimak esperimentzia laburragoa izan zuen. Aipatutako talde biek Lekeitio-ko Rock Jaialdian egin zuten bat; hor elkartu ziren Jeikiko Jabier Zabala (baxua) eta Ernesto Gomez (ahotsa eta gitarra

akustikoa) eta Zimako Julian Alberdi (gitarra elektrikoa) eta Josean Salado (bateria). Hasi eta berehala Lone Star taldearekin jo zuten Eibarren eta Basauriko rock lehiaketa irabazi. Xoxoarekin diskoa grabatu eta hainbat kontzertutan izan ziren Errobi eta Itoiz taldeekin, Lemoizko zentral nuklearraren aurka 1980an Bilbon egindako Herri Topaketetan, esaterako. Rock progresiboa, hard-rocka eta folk musikaren eraginak uzartu zituen Liskerrek.

## 40 urtetik gorako ibilbidea egin du Liskerrek eta gozatzen eta gozarazten jarraitzeko asmoa dute

Taldekieen soldadutza eta pa atzean lagata, 1983an itzuli zen taldea eszenategietara, baina berbenen bidetik jo zuen handik aurrera. Orain arte, eta horrela jarraitzeko asmoarekin. Liskerrek argi-ekipoa, soinua, bateria, teklatua, gitarrak eta muntaia serioa dute lagun doazen tokira doazela. Badakite eta jendeak pozik erantzuten dietela. Badira urte batzuk Eibarren omenaldia jaso zutela eta horrelako bizipenak ez dituzte inoiz ere ahaztuko.



**Kili Kili**  
 ☎ 943 20 24 01 Egunero  
 - Gosariak 07.00etan  
 - Plater konbinatuak zabaltzen  
 - Eguneko menua dugu



Goizeko 07.30etatik zabalik  
 ondo pasa Sanjuanak eta Sanpedroak!!!  
**bar manuel**  
 (JUANITO)  
 Urkizu, 5 943 12 16 57





**Garbi dakagu  
gauzak ondo egiten  
lagunduko diguzula**



**Giro ezinhobea,  
musika bikaina...**

**AMETSA**  
*Gin Bar*

**Toribio Etxebarrian**

**ZEOZER  
DESBERDINA!**

**URKIZU, 11**



**B A L K O I**



*Aguñaspi*

**URKIZU, 22 943 128086**

*lanegunetan 06:00etatik asteburuetan 08:00etatik*

**Eguneko menua, Menu bereziak,  
Gosariak, Plater konbinatuak, Razioak,  
Bokatak, Hanburesak, Pintxoak...**

**O-HARA**



**irish pub**

**BERRIAK**

**ASKOTARIKO  
KROKETAK**



**San Juan kalea, 19  
943 096721**

**SUPER COMBO  
TEX MEX**



**SLOW**

**Ego Gain, 10 943 25 41 33**

**CHO**



**Birjiñape** TABERNA  
**Berria** JATETXEA



**hanburesak bokatak  
ospakizun bereziak**

**eguneko  
menua**

**karta  
berria**

**Toribio Etxebarria, 16 - 943 82 13 41**

## &lt;&lt;&lt; USARTZA TXISTULARI TALDEA &gt;&gt;&gt;

# “San Juan Zortzikoa eta San Juan bezpera barru-barruan daramatzagu”

Aurtengo Sanjuanetan ezingo dugu ohiko moduan parte hartu. Baina ekitaldi batzuk streaming bidez jarritu ahal izango dira. Horietako bat Usartza Txistulari Taldeak urtero San Juan bezperan eskaintzen duen San Juan Zortzikoa izango da. Aurten, Untzaga plazan izan beharrean udaletxeko patioan izango da, publiko barik, eta ordenagailu, tablet edo mugikorren pantailen bitartez jarraitu ahal izango dugu. Horrez gain, hurrengo egunean Coliseoan izango dira Kezka dantza taldearekin batera. Usartza taldeko Enrique Monterok guztiaren berri eman digu.



**Zeinek esango zigun hainbeste urtetan San Juan bezperan jo duzuen "San Juan Zortzikoa" aurten internet bitartez zabalduko zenik.**

Hori da daukagun egoera eta errealitatea. Urtero bezala, goizeko 11:00etan joko dugu, baina aurten Untzaga plazan izan beharrean udaletxeko patioan izango da, aurrez aurreko publikorik gabe. "San Juan Zortzikoa" jo ondoren beste pieza herrikoiak joko ditugu jarraian. Gurekin izago dira Unai Cabanzon eta Danel Montero tronpetak eta gure taldekidea den Iñaki Orbeagozto tronpa. Gaine-

ra bandan izan diren hainbat txistulari eta musika eskolako bi ikasle izango dira, Asier Gisasola eta Leire Arrizabalaga.

**Aurten bizi dugun egoera dela-eta, ez duzue kalejirarik egingo, ezta?**

Ez, aurtengo jaietan ez da kalejirarik izango. Zortzikoa eta horren ondoren herriko kaleetatik egiten dugun kalejira San Juan jaietako lehen ekitaldiak izaten dira (nahiz eta beti esaten den jaiak dultzaineroekin hasten direla). Guretzako egun zoragarria izaten da, polita eta berezia. Kalerik kale

**PODOLOGOA**  
Maidier Lopez Etxeberria  
65 Kolegiatu zbkia.  
Arragueta 2 Bis-B, Behea B  
Tfnoa. 943 82 04 88

**PINTURAS ARRATE S.L.**

- Nexa Autocolor
- Pintura industrialia
- 3M produktuen banatzailea

MATSARIA, 34 behea - A  
info@pinturasarrate.com  
Tel. 943 20 41 04 Faxa: 943 70 06 89

**PUBLI RESA**  
objeto publicitario

Armagin, 3-5 beheak

- merchandising
- serigrafia
- lanerako erropa

publiresa@publiresa.com 943 701 497 / 615 799 419

**Rivero**

Isasi, 18 - behea 696 564 813  
943 033 649

Oinetakoan konponketa



# SAN JUAN NAK 2020

joaten gara gure herriko jaiak iragartzen, giroa berotzen eta jendea animatzen; 13:00etan Estaziñora iristen gara dultzaineroei ongietorria emateko. Egun hori barru-barruan daramagu. Aurten ez da horrela izango... baina tira! Ahal dugun guztia egingo dugu jaiei kolorea jartzeko, streaming bitartez bada ere. Hurrengo egunean, Coliseoan egongo gara Kezka dantza taldearekin.

**Zalantza barik jaiak beste modu batean bizitzea toka-**

**tu zaigu herritar eta eragile guztioi...**

Guztiok arduraz jokatzen jarraitzea ezinbestekoa da. Eta desberdina izango dela jakin arren, ea lortzen dugun gutxienez kolore apurtxo bat jartzea.

**Azken hilabeteetako isiltasunaren ostean, apurka-apurka, berriro hasi gara txistuen doinuak entzuten....**

Euskal Jaian parte hartu genuen, eta aurreko domekan konfinamenduaren osteko lehen kalejira egin genuen. Jen-

deak (balkoietatik zein kaletik) asko eskertu zigun. Kontuan izan behar da gu talde txikia garena eta kalejirak goizean egiten ditugula. Gure ekitaldietan ez da jende pilaketarik egoten. Beraz, segurtasun neurri guztiak beteta, arrisku barik egin daitezke.

**Beraz, desiatzen zaudete berriro ere kaleak alaitzen hasteko.**

Hurrengo asteetan normaltasunera bueltatzea espero dugu. Gu oso animatuta gaude! Gure lana oso gustora egiten dugu txistulariok. Eta, aldi berean, herritarrekin nolabaiteko konpromiso edo betebeaharra daukagula uste dugu. Neurri guztiak hartuta, uste dugu posible dela herriko giroari kolore apurtxo bat jartzea.

**Zein da txistulari taldearen egoera une hauetan? Badago erreleborik?**

Txistulari gutxi gaude Eibarren, eta egiten dugun lanaren helburuetako bat da, hain zuzen, txistua herritarrei gerturatzea eta ezagutzera ematea, musika eskolan ikastera animatu daitezzen. Hemendik urte batzuetara taldea bizirik jarraitzea gustatuko litzaiguke.



San Juan Zortzikoa udaletxe barruan joko dute aurten.



Baimendutako  
harategia  
Euskal Okela  
Carnicería  
autorizada

Bidebarrieta, 20  
Especialistak plater prestatu  
eta haragi bikainetan  
**ETXERA  
ERAMATEN DIZUGU**  
943 20 16 69  
f @Oberenaharategia



# ZURICH

**Lejardi S.L.** Aseguru Agentzia

Tel. 943 20 11 49 / Plaza Barria, 8 / Eibar

&lt;&lt;&lt; JAIXAK HERRIXAK HERRIXANDAKO &gt;&gt;&gt;

# “Modu sinbolikoan bada ere, Sanjuanetan presente egongo gara”

Sanjuanetarako egitaraua ilusioz prestatzen ari zirela, COVID-19ak dena hankaz gora ipini zuen. Otsailetik lanean egon arren, ez diete eman ezer antolatzeke baimenik. Hala ere, kalera irtengo dira, jai herrikoi, euskaldun, feminista eta partehartzaileak aldarrikatzera.

**Pandemiak aurtengo Sanjuanetarako egitaraua prestatzen ari zinetela harrapatu zintuzten, ezta?**

Bai, hala da. Otsailean hasi ginen lehen bilera irekiak Txal-txa Zelaian egiten, oso martxa onea, gainera. Egitarauko gauza asko lotuta genituen, beraz denbora aldetik oso ondo genbiltzan. Gainera, jende berria bileretan parte hartzera animatu zen eta oso pozik geunden. Baina, bapatean, koronabirusa ailegatu eta dena bertan behera laga behar izan genuen.

**Hala ere, hasitako lan horrekin aurrera jarraitzen ahalegindu**

**zineten, nahiz eta itxialdian egon. Nola moldatu zineten?**

Hasieran 15 bat egunerako kontua izango zela esan zuten, guk gauzak prestatzen joateko lanean jarraitzea pentsatu genuen. Bilerak egiteko betiko martxan elkartzeko modurik ez zegoenez, telematikoki egiten hasi ginen, nahiz eta ez den gauza bera. Baina itxialdia beste hamabost egun gehiago luzatuko zutela esaten hasi zirenean, eta gero beste hamabost gehiago... honek luze joko zuela ikusi eta konturatu ginen ez zela posible izango Sanjuanak betiko moduan ospatzea eta, beraz, gure egitaraua ere



• **tartak**  
• **enkarguak**  
**etxera**

Bidebarrieta, 28  
☎ 943 20 79 73

STYLO

Ane Elizburu

Bidebarrieta 16  
943 20 53 48

ILEPAINDEGIA

Zuloagatarren, 7  
Tfnua. 943 20 62 24

Oinetakoak

**Tribeka**

**TXUTXUFLETAS**

PRENTSA  
ALDIZKARIAK  
GOZOKIAK  
FRUITU LEHORRAK  
• OGI BEROA

T. Etxebarria, 24 TEL. 943 20 60 10



aldatu beharko genuela, ezin izango zela kontzerturik egin, normalean antolatzen ditugun beste gauza asko edo ia gehienak egitea ezinezkoa izango zela... Orduan gure jaietarako proposamena berriro lantzeari ekin genion, baina egoera berri-  
ra moldatuta.

**Horrekin batera, Jaixak Herri-  
xak Herrixandako eguna anto-  
latu zenuten. Nola joan zen?**

Ba oso pozik gaude jendeak eman zuen erantzunarekin. Apirilaren 4an izan zen, beraz itxialdian geunden, eta nahiz eta gauza asko sare sozialen bi-  
tartzet egin, egunean zehar herri



osoa musikarekin girotu genuen eta bestela, egoera normalean guregana gerturatzen ez den jende askok parte hartzea lortu genuela uste dugu. Izan ere, itxialdiak iraun duen bitartean, bizilagunen arteko harremanak asko estutu ziren eta bazegoen horrelako giro berezi bat. Zoriturrez, kalera irtetzen hasi garenean lehengora bueltatu gara eta horiek desagertu egin dira.

**“Egoerara moldatuta zerbait egiten ahalegindu gara, baina azkenean ez digute laga”**

**Nolako izan da egoera berri-  
ra moldatutako jaiak prestatzea?**

Nahiz eta jakin Sanjuanak ezin-  
go ditugula orain arte moduan ospatu, irudimenari ateak zabalik, gure jarduna erantzukizun-  
ez eta egoerak eskatzen duen arduraz egokitzeko ahalegine-  
tan lanean ari ginela, prentsa-  
ren bidez jakin genuen Uda-  
lak bertan behera lagako zuela Sanjuanetako egitaraua. Itxura

**MUGIKA HARATEGIA**  
Urkizu, 18  
943120194

**LOURDES URZURIAGA**  
987 ZENBAKIDUN DELEGATUA  
Sostoa, 1 - behea (EIBAR)  
943 82 04 49  
688 871 717  
lurzuri@mapfre.com

**MAPFRE**  
teCuidamos

denez, Jaixak Herrixak Herri-xandakotik jai herrikoien alde urteetan egin dugun lanak ez du ezer balio Udalarentzat eta, gurekin ezer kontrastatu aurretik eta guri inolako jakinarazpenik egin gabe, ezertarako baimenik ez ematea eta, beraz, jairik ez egitea erabaki dute.

### Gauzak horrela, zer prestatu duzue Sanjuanetarako?

Argi dago jendeak jaiak ospatzeko gogoia baduela eta ez dela etxean geratuko, azken egunotan gure kaleak nola bete diren begiratu baino ez dago. Beraz, jaiak egon egongo dira: tabernetan, elkarte gastronomikoe-tan, jatetxeetan... Hori bai, eremu pribatueta eta zuzenean kontsumoari lotuta ospatuko dira, herritarron sozializazio eta aisialdirako beharren gainetik dirua lehenetsita. Zer lortzen

## “Horrela jokatuta jaien eta aisialdiaren erabateko pribatizazioa lortuko dute”

dute honekin? Jaien eta aisialdiaren erabateko pribatizazioa. Baina gu ez gara konformatuko eta jai herrikoi, euskaldun, feminista eta partehartzaileen bidean aurrera jarraituko dugu, sekula baino beharrezkoagoak direla ikusten dugulako. Horregatik, gure aletxoak jartzeko ahalgina egingo dugu, eta ohiko egitaraua martxan jartzea bideragarria eta zentzuzkoa ez bada ere, guk gure jai-ereduaren aldeko aldarria egiten jarraituko dugu, ekimen ezberdinen bitartez. Sanjuanetan presente egongo gara, modu sinboliko batean bada ere. Horretarako, Gazte Egunerako beste urte batzuetan egindako kamisetak janzteko eta argazkiak egiteko eskatuko diogu jendeari, txosnetako basoak tabernetan erabiltzeko... Bestalde, jaiak bertan behera lagatzen zituztela jakin aurretik logotipo berria egin genuen eta horrekin txapak atera ditugu. Eta Spotifyn gure balioekin bat datorren musikarekin zerrenda prestatu dugu, nahi duten guztientzat, tabernariei eskaintzera joango gara baita ere. Herritar guztiei kaleak hartu eta jaiak gozatzeko dei egin nahi diegu, beti ere egoerak eskatzen dituen neurriak hartuz, arduraz jokatuz eta elkar zainduz.



**GURE LEKU**  
eskerrik asko  
bezero guztioi

Isasi, 3  
20600 EIBAR ☎ 943 20 71 89

*Etanri probatuare  
hamburgesak  
sandwichak  
kazulitak  
eta gero  
tragoak bat*

**GORA Sanjuanak!!** *Gosariak  
Bakatak  
Pintxoak  
Tragoak*

**Trinkete**  
EIBAR 1957

**Ospatu gurekin!!**  
Errebal, 24 943 70 13 23

Bista Eder, 10 **Portalea Jatetxea**

“Eguneko Menua”  
Afariak asteburuetan  
(egunero enkarguz)  
Pintxoak  
Ogitaratekoak

943 20 68 68

**IGANDEETAN ITXITA**

etxera  
eramateko  
janaria

Bidebarrieta, 39  
943 845503

**ETXEO JAKI DENDA**

**baraitze**





**Akhara**  
 Untzaga Plaza, 6/10r  
 943 043 782

**GORA**  
**GURIDI**  
 SAN  
 JUAN!

**CERVECERIA**  
*Bierhaus*

- Entsaladak
- Plater konbinatuak
- Bokatak
- Garagardo alemana
- Gosariak, bazkariak eta afariak

**PAULANER MÜNCHEN**

**EGO-GAIN, 4 943-201329**

Gozateko 08:00etatik  
 gaueko 01:00etara

Toribio Etxebarria, 18 - 1.

**CASINO ARTISTA EIBARRES**

**Enkarguak hartzen dira**

**Telefonoa: 943 20 71 90**

**SOKOA**  
 EIBAR-ONDARRU

birjiñape, 1 behea  
 tel. 943 20 71 00

**SOKOA**

Ego gain, z/g

**GASTROTEKA BOSSA**

**Ongi etorriak zuen etxera!!**

943 20 67 53



**NEW**  
 A DOMICILIO & TAKE AWAY  
 T. 943 56 72 06

**HIRUROK BRASS**

100 etzekun producto KM0

**ORDUTEGIA**  
 ostegunetik igandera  
 19:30etik 23:30era  
 Errekatxu, 1

**CAFETERIA BAISI**

Urkizu II, Behea - 943 53 08 16

*Gora San Juanak!*

astelehenerdik ostegunera **06:00 / 22:00**  
 ostiralean **06:00 / 23:00**  
 larunbatean **08:00 / 23:00**  
 igandean **08:00 / 22:00**

**Urkizu, 24**  
 943 358138  
 660 460295

**Gastro-Bar ORBELA**

**JANARIA ETA EDARIAK ERAMATEKO**





&lt;&lt;&lt; KEZKA • Dantza taldea &gt;&gt;&gt;

# “Kalean egiteko asmoa genuen, baina Coliseora moldatu behar”

Kezka Dantza Taldekoek San Juan egunean egingo duten soka-dantza izango da aurtengo jaietako egitarauak hartuko duen ekitaldietako bat. 20:30ean hasiko den saioa ordu erdiren bueltan amaituko da eta streaming bidez zabaltzeko asmoa dute.

**K**ezka Dantza Taldekoek urteroko Sanjuanetako soka-dantzari eusteko ahalegina egin dute eta aurtengo jai-egitarau berezian sartuko dira azkenean. “Kalean egin nahi genuen”, diosku Oier Araolazak, “herriko-dantza edo kale-dantzaren bertsioa besterik ez delako soka-dantza”. Baina, azkenean, Coliseoan burutuko dute ekitaldia, “streaming bidez zabaltzeko”: hilaren 24an, San Juan egunean, izango da, 20:30etan hasita, sarearen bidez eskainiko den dantzaldia. Plazako dantza izango da, dena dela, eskainiko dutena, Untzagakoaren antzerakoa.

Soka-dantzaren tradizioa berreskuratu zela 25 urte bete ziren iaz; eta, mende laurdena beteta, aurtengoz egitekotasun izan da. Berezia izateaz aparte, aurtengoz hainbat muga eta protokolo bete beharko dituzte: “16 dantzari eta lau txistulari, Usartzakoak ere, izango gara ekitaldian, aurtengo omenduak izango diren bi osasun-langilerekin; ohikoa denez, gurekin integratuko dira eta dantza amaituko. Bestalde, sarrera ere mugatuta dago, 30 lagunentzat; zozketaz edo ez dakit zelan hautatuko dituzten. Guri argazkilarik bakarrendako tokia gorde digute”. Untzagakoaren



Fisioterapeuta  
18 zenbakiko  
Kolegiatua

**FISIOTERAPIA  
GUEREÑU**

EIBARKO TXIKITO, 12  
BEHEA ESKUMA  
TELEFONOA:  
943 12 14 80

LEGE AHOLKULARITZA / AUDITORIA

**Gaurve**

Tfnua. 943 202 461 Faxa. 943 201 125  
Fermin Calbeton, 13-15 [www.gaurve.es](http://www.gaurve.es)

**GAUR**  
ELEKTRIZITATEA

INSTALAZIO ETA  
KONPONKETA  
ELEKTRIKOAK

ATEZAIN  
AUTOMATIKOAK ETA  
BIDEO-ATEZAINAK

Zuloagatarren 9, behea Telefonoa 943 20 62 40  
[carmen@egaur.com](mailto:carmen@egaur.com)

inmobiliaria

**IbaiOndo**  
Home Staging

ETORRI GURE DENDA BERRIA EZAGUTZERA

Bidebarrieta, 24 Tel. 943 201213  
[www.inmoibaiondo.com](http://www.inmoibaiondo.com) [ibaiondo@inmoibaiondo.com](mailto:ibaiondo@inmoibaiondo.com)



iraupena ordu erdiaren bueltakoa izaten bazen, Coliseoan 20-25 minututan amaituko dutela uste dute, "espazioa ere ez da Untzagakoa bezain zabala izango-eta".

Soka-dantza horren izena aurrekua dela dio Araolazak, "XX. mendean toki askotan esku-dantza, gizon-dantza eta horrelakoekin ezagutzen zena; baina, nagusiki, aurrekua moduan. Sokan egiterakoan parte batzuk atera egin dira, aurrekua baino oihartzun handiagoa hartuta. Soka sinbolikoa da, eskuz-esku egiten dena; hortik datoz baita aurreko eskua, atzeko eskua... azkenean aurrekura



# SAN JUANAK 2020

ekarriko digutenak, gidari bera bakarrik jardutean, jarraipen barik. Agurra ere deitzen da, soka-dantzaren parte; gauza bera da".

Eibarren lagata zegoen 1967-68tik gutxi gorabehera, "Arrateko Amaren egunean eta halakoetan dantzatu bazen ere". 1994an berreskuratu zuten eta ordutik iraun du gaur arte. Kalerik egin gabe? Oierrek ez du ondo gogoratzen: "Euria ere egokitu zaigu noizbaiten, baina dantzan egin genuela uste dut. Gogoan dut nik baten orkati-

la bihurtu eta ezin izan nuela dantzatu".

Udalbatzaren parte-hartzearen inguruko tradizioari buruz, Araolazak diosku lehen goizez egiten zela dantza hori: "Meza izaten zen 10:00etan, 11:00etan prozesioa egiten zen San Andresetik Untzagaraino eta, ondoren, aurrekua dantzaten zen. Agintariek dantzatzearena aspaldiko ohitura da, ordezkari politikoei zegokien-eta ohore hori, herriaren izenean. Udalbatzak eskuz-esku dantzatzeak herriaren kohesioa irudikatzen

**"Iaz 25 urte bete ziren tradizioa berreskuratu genuenetik; aurten hau egokitu zaigu"**

**KINKILA KINKILA**  
Creaciones Bebé  
943 70 23 29  
Bidebarrieta, 16  
creacionesbebe@live.com

667 54 89 16  
**KOLORLAN**  
PINTURA LANAK S.L.

**LASKURAIN ASEGURUAK**  
ERA GUZTIETAKO ASEGURUAK  
R.A.C.V.N.-ren ordezkaritza  
J. Etxeberria, 7 (Aldapatxo)  
Telf. 943 20 37 13 / 943 12 05 30  
Faxa. 943 70 28 87  
rac@jalaskurain.euskalnet.net

**LauKolan**  
SOLUCIONES INFORMATICAS  
Tel. 943 120 350 Faxa. 943 127 087  
Urkizu Pasealekua, 10 (20600 EIBARI)



zuen, erritual bezalako zen". 1994an, Kezkak tradizioa berreskuratu zuenean, Juan Antonio Urbeltz ere ekarri zuten Eibarrera, sinbolismo horren alde lan gehien egin duen ikerlaria.

Gaur egungo soka-dantzan Eibarko zinegotziek ez dute parte hartzen: "10-15 urtetan jarraitu genuen udal-korporaziokoe-kin dantzatzen, baina Txontako bizilagunen kexeekin eta beste-lako mobidekin, halako batean laga zioten parte hartzeari. Inñaki

Arriolaren sasoiaren izan zen hori eta De los Toyos alkate dela ez dira bueltatu. Zinegotzi zenean dantzatu bazuen ere". Dioenez, azken urteetan ohiturari eusteko asmoa jakinarazi dio bateren batek, "baina gu ez gara inor erabaki hori hartzeko; eurak prest badira, gu pozik, eta aurrera. Herriarekiko euren konpromisoa edo zorra da".

Ekitaldia prestatzeko lane-kin jarraitzen badute ere, "Coliseoan saio bakarra egin dugu,

## "Gu irekita gaude alkateak eta zinegotziek soka-dantzan parte hartzera, baina euren erabakia da"

aste honetan izango da bigarrena. Txaltxa Zelaian edo Lezarreko frontoian entseguak egiteko baimena eskatu genuen, baina ez ziguten eman". Bideo-konferentzia bidez di-

hardute entseatzeko eta euren aktibitateari eusten, "baina zaila egiten da sinkronizatzea eta, horrez gain, etxeetako espazioa ez da aproposena izaten askotan".

**Gestoria Alonso**  
San Agustin, 5 - BEHEA  
618 25 93 44  
943 20 20 17  
mcalonsoeibar@gestores.net

artile.net

**EGUREN & ASOCIADOS ABOGADOS**  
Urtzaile, 1  
TEL. 943 204 194  
FAXA. 943 820 006  
egurenyasociados@gmail.com

**JOSE VICENTE PEROSANZ  
M<sup>o</sup> LUISA SOROA  
MARTA VALERA  
IRATXE URIBEZUBIA**

**EL TIO PAIKAT**

**Cozokiak  
Ozpinetakoak  
Urtebetetzeetarako paketeak  
Gominola-kaxak  
Ezusteko kaxak**  
Asteko egun guztietan irekita

**JUAN GUIASOLA KALEA 8**



# Kultö:

Zuloagatarren, 3  
Tel. 943 20 84 39

## KULTOR ELKARTEA

**San Juan zoriontsuak!!!  
Horretarako gaude-eta!!**

KULTU

# 26. urteurrena

*Pintxoan  
alardeari  
ezin begirik  
kendu!!*



## EIBAR

HORTZ KLINIKA  
CLÍNICA DENTAL

Gelditu egin behar izan dugu,  
halabeharrez, baina orain...

**Ez gaitu  
ezerk geldiaraziko!**

Eibar Hortz Klinikako talde osoa  
itzuli da, eta inoiz baino gogo  
eta indar gehiagorekin gainera.

📍 San Agustin Kalea, 4 Behea Ezkerra  
20600 Eibar (Gipuzkoa)  
☎ 943 537 076 - 688 884 808  
✉ info@eibarclinicadental.com



## &lt;&lt;&lt; DULTZAINEROAK &gt;&gt;&gt;

# “Minutu bakar baterako izango balitz ere, Eibarrera joango ginateke”



Sanjuanen bezperan ez da jende pilaketarik egingo Estaziño kalean. Bakarrik utziko dute brontzeko dultzaineroa eta ez da Lizarratik datorren Sanjuanen soinu bereizgarria entzungo. Kalean ez, baina interneten bai. Izan ere, dultzaineroak gurera etorriko dira, baina aurrez aurreko publiko barik emanaldia eskainiko dute 23an, 13:00etan, udaletxeko patioan. Udalaren YouTubeko kanalean zuzenean ikusi ahal izango da. Salvador Martinez dultzaineroarentzat Eibar plaza berezia da eta, San Juan jai bereziak izan arren, etortzeko gogoz dago. Emozioz gogoratzen ditu Estaziño kalean egiten zaizkien harrerak eta une zailenetan ere eibartarrekin egiten du bat.



Zezenbide 7, Eibar 20600 Gipuzkoa tlf.943206231



**AUTO KONPONKETAK**  
**AURRERA**

- Mekanika - Elektrizitatea
- ITVrako errebisioak
- Frenoak - Amortiguazioa
- Mantenimendua - Erroberak

Urtzaile, z/g  
Telefono eta Faxa: 943 20 80 65

20600 EIBAR  
(Gipuzkoa)



ERANTZUNIZUN ZIBILA / AUTOAK  
BIZITZA ETA JUBILAZIOA / OSASUN  
ASEGURUA / ISTURPU BANAKAKO ETA  
KOLEKTIBOAK / ARRISKU ANITZAK



**EMILIO DE LOS TOYOS**  
Erreg. zkoa. C046815351532K

Eibarko Txikito, 8  
943 200 908 / 610 422 179  
emilio.toyos@agentes.catalanaoccidente.com



**CERRAJEROS**



665 590 119

Tel. 943 107 770  
Juan Gisasola, 4  
EIBAR

www.cjseguridad.com  
cjcerrajeros@gmail.com

Tel. 943 132 514  
Areba, 27  
ZARAUTZ



# SAN JUANAK 2020

## Zer prestatu duzue San Juan jai berezi hauetarako?

Hasiera batean Udala zerbait gehiago egiteko prest zegoen, baita gu ere, baina dauden arriskuak ikusita publiko barrik jotzea erabaki da. Beraz, han egongo gara jendea gortzen (barreak). Ez dakigu ekitaldiak zenbat iraungo duen, behar den beste egongo gara bertan.

## Kalejiran ez, baina internet bitartez ikusiko zaituztegu.

Ondo iruditzen zait, badelako zerbait. Esperientziagatik diot berdin dela dultzaina jo edo lapikoen bi tapa hartu eta elkar jotzea, zarata eginez gero jendea segituan jartzen delako atzean.

Eibar horrelakoa da musika-rekin eta musika entzungo du kalean, interneten edo edozein tokitan.

## Horretarako bakarrik bada ere, zuek bazatozte.

Bisita hau ez da guztiok nahi duguna izango, baina horrela tokatu da. Gu oso pozik goaz tradiziozko tokietara, dultzaina gustoko duten herrietara. Minutu bakar baterako izango balitz ere, Eibarrera joango ginateke.

## Arraroa izango da, baina behintzat bada zerbait?

Hori izan da Udala egiten ahalegindu dena eta nire ustez asmatu egin dute. Erraza da kanpotik kritikatzea, baina zuhurtziaz jokatu dute eta nire miresmena dute. Guztiok nahiko genuke jaiak beti bezala ospatu, baina ezin da.

## Eibarren bezala beste toki batzuetan jotzeko aukera izango duzue udan zehar?

Aurten 'sota, caballo y rey' egingo dugu eta, egiten duguna, Eibarren bezala izango da. Aspal-diko partez oportretan joango naizela pentsatzen dut. Uste dut 44 urtetan 3 aldiz joan naizela oportretan udan. Hori bai, Kantauri itsasora joango naiz.

## Dultzaina eraman badaezpada. Beti daramat soinean!



**Ostalari-tza**      **Arkitektura industrialia**      **Eralkin publikoak**

**Etxe erreformak**      **Bulegoak**      **Barne diseinua**

**KOKOJATEN**  
arkitektoa eta diseinua  
www.kokojaten.com  
Fernan Caballero 8 esk.  
943 12 82 11 / 670 85 85 37

# Astelena oraingoan ere aitzindari izateko asmoz

Martxoaren erdialdetik pilota partidurik gabe izan garen honetan, frontoi guztietako atea itxita, badirudi zeozer mugitzen hasi dela eta, beti ere neurriak hartuta eta protokoloei eutsiz, pilotarien harat-honakoak ikusteko aukera izango dugula berriz ere. Zer egokiagoa Katedrala baino horrelako sasoiari ekiteko! Aspe eta Baiko enpresetako pilotariak ERTetik irten eta entrenamenduekin hasi dira, uda honetan ikuskizuna eskaintzeko asmoz. San Juan egunak hartu dezake lehenengo jaialdia; hori da, behintzat, pilota enpresarien gogoia.

**P**ilota Katedrala San Juan egun batean zabaldu zen, orain dela 116 urtetako ekainaren 24an. Astelena izena hartu bazuen ere, barixakuan jausi zen egun hori 1904an. Sasoi hartan frontoiko sarrera hoberenak asteko lehen egun horretan izango zirela aurreikusten zuelako enpresariak. Toribio Etxebarriak honela zioen “Viaje por el país de los recuerdos” lanean: “Astelehenetan lanik ez egitea edo erdipurdi egitea gertatzen zitzaizen askotan beharginei, tailerra eta taberna artean gordeketan bezperako gehiegikeriak sendatzen, ajeak astintzen ibiltzen baitziren. Eta astelehenetan pilota partiduren baten albistea zabaltzen zenean langile guztiek tailerra lagatzeko aitzakia bazeukaten. Eta hori astelehenero gertatzen zen eta ez zen berriemailearen beharrik”. 1904ko San Juan egunean inauguratu zen Katedrala, beraz, eta animazio handiz: arratsalde hartan Takolok eta Kantabriak jokatu zuten 22 tantura eskuz, jokoan mila pezeta zirela. Kantabriak irabazi zuen 22-17 eta partidua ikustera asko etorri ziren Bilbotik.



FONDO MARIN - KUTXA FOTOTEKA

1969ko abenduaren 28an itxi zen frontoia eta gaur egun duen itxura hartuko zuen ia hiru urte iraun zuten lanak amaitu zirenean. 1972ko urriaren 8an zabaldu zen berriro. Aire egokitzeko instalazio berria, harlauzezko lur aldaketa eta ikusleak sartu eta irtetzeko ate berriak egin ziren, zerbitzuak hobetu eta erosoago egoteko aukera eskainiz. Aurrekoare-

**116 urte beteko ditu Astelena frontoiak ekainaren 24an**

kin batera frontoi zaharren ezaugarri batzuk galdu ziren: 9 koadroan zegoen sarrera atea, ezker paretako leihoa, errebotea eta palkoen arteko anbigua. Burdinezko armazoi berriak eta uralitazko estalkiak argi artifiziala ekarri zuten.

1997ko abenduaren 28an itxiko da berriro, handik hilabete batzuetara, Sanjuanetan orduan ere, atea zabaltzeko be-



# Eibarren badakagu

Denok irabazten dugulako





rriro. Horrela iraungo du beste zazpi urtetan, tartean mendurrena pasatuta, 2005eko martxoaren 1ean ateak ixten dituen arte. Handik 22 hilabetetara, 2007ko maiatzaren 20an, Udalak erosiko du eta gaur arte.

#### Udako binakako txapelketa

Astelenan hasteko asmoa duten torneoan zortzi bikotek jardungo dute, Baiko eta Aspeko pilotariekin osatutako bikote mistoak: "Binakako txapelketa balitz bezala jokatu da, baina udarako formatu sinplean", esan dutenez.

Aste honetan ziren biltzeak pilota munduko ordezkariak eta udal ordezkariak jarraitu beharreko protokoloak zehaztu eta onartzeko. Aspe eta Baikoko ordezkariak aforoaren %60a heltzeko asmoa dute, "pilota bueltatzeko zaletuak frontoian izatea beharrezkoa

## Eibarren hasiko da uda hartuko duen zortzi bikoteen arteko Torneoa

dugulako". Astelenako Jaialdiak hiru partidu hartuko ditu, 17:00etan hasita, eta, esan digutenez, "sarrerak Interneten bakarrik egongo dira salgai, txarteldegirik ez da zabalduko". Bestalde, Eibarren hasiko den torneoak "bi hilabete eta erdi iraungo du; hurrengo jaialdia Irunen jokatu da, Uranzu frontoian". ■



Pedro Mari Iriondo eibartarra erdiko epaile lanak egin zituen urte askotan. Irudian Atano X.ak Azkarateri 22-13 irabazi zion finalean, Atano III bere osaba eta botileroaren aholkuak jasotzen. PLAZAOLA

Pol. Ind. Goitondo Beheko Lau  
48269 Mallabia, Bizkaia  
Apto. 537, Eibar  
[www.gruasiru.com](http://www.gruasiru.com)

943200266  
[info@gruasiru.com](mailto:info@gruasiru.com)



GRUAS  
IRU





## Greziako errefuxiatuei jaten emateko 6.000 kilo dilista eta arroz batu dira

Eibarren eta Ermuan Greziako errefuxiatuen alde egin den erronka lortu egin da eta, zailtasunak zailtasun, Lesbosko eremuan daudenei jaten emateko milaka kilo arroz eta dilista batu dira, premiazko beste produktu batzuekin batera. Horiek guztiak Urkotronik enpresak lagatako biltegian gorde dituzte eta Lesbosera bidaltzeko prest daude. Horrez gain, 5.250 euro batu dira eta astelehenean eman zioten dirua Zaporeak proiektuko Efren Flores. Jesus Gonzalez, Maite Gorrotxategi eta Mirreia Alonso sukaldarien ekimenez egin den erronkan lagundu dutenetako asko elkartu ziren ekitaldian: bi herrietako Udal ordezkariek, Eibar K.E.-ko eta Athletic Klubeko fundazioetakoak, sukaldariak, Untzagako jubilatuek... Bestalde, rifetan saritutako zenbakiak hauek dira: 2.784, 0540, 3.421, 0681 eta 3.177. Saridunek Ermuko Arriaundi okindegira (943174048) edo Sagarra jatetxera (943946810) deitu dezakete. Irabazlea ekainaren 21erako agertu ezean, saria lehen ordezkoak jasoko du (ekainaren 28ra arte) eta, bestela, bigarren ordezkoak eramango du (uztailaren 5era arteko epea dago).





 **aldaz**  
hortz klinikak · clínicas dentales  
Lasarte-Tolosa-Elgoibar  
943 36 63 77

**ALDAZ HORTZ KLINIKAKO  
LAN-TALDEAK PROTOKOLO  
BERRIAK SORTU DITU**  
tratamenduetan zuon segurtasuna bermatzeko



RPS 181/19



&lt;&lt;&lt; JUDAS ARGARATE • Musika taldea &gt;&gt;&gt;

# “Gure abestietan estilo ezberdinak lantzen ditugu, baina rockaren inguruan, betiere”

Markel Iraolak, Joseba Goñik, Hodei Otegik eta Carlos Balseirok osatzen dute Judas Argarate taldea. Lankideak dira Elgoibarko Rodisa enpresan, eta, abestiak sortzeaz gain, talde ezagunen bertsioak egiten dituzte. Sare sozialetan arrakasta izan dute Su Ta Garren eta Reincidentes taldeen abestien bertsioak.

EKHI BELAR

## Itxialdian nahiko aktibo ibili zarete. Zer moduz joan da?

**MARKEL:** Aspertuta geunden eta abestiak grabatzea bururatu zitzaigun. Lehenik, Su Ta Garren ‘Geroaren hazi heziak’ abestiaren bertsioa grabatu genuen. Sare sozialetan partekatu genuen eta jendeari asko gustatu zitzaion. Inoiz baino ikustaldi eta bisita gehiago jaso genituen!

**HODEI:** Esperimentu bat izan zen. Mugikorrarekin grabatu genuen, horrek duen kalitatearekin.

**JOSEBA:** Lehenik, Hodeik bere zatia grabatu zuen eta, ondoren, guk gureak. Gero, elkar-



**CORRAL**  
#Eibarrenbadakagu  
GIZON MODA  
T. Etxebarria, 17 943-201949

**ZURE OSTATUA**  
Eibar erdian eta  
Euskal Herriaren  
bihotzean

[www.eibarrooms.com](http://www.eibarrooms.com)  
Ego Gain, 17 ac

**eibarrooms**  
AUTO CHECK-IN

**AUTO-RECAMBIO**  
**Umbe**

**Barrena, 11** [umbe.holyauto@hotmail.com](mailto:umbe.holyauto@hotmail.com)  
Tel. 943 12 04 00 Fax. 943 70 20 65

**Autoarendako hornidurak  
eta ordezeko piezak**

**HolyAuto**  
GROUP



tu egin genituen. Bideoa eta ahotsa aldi berean daude grabatuta.

### Eta Reincidentes taldeko Fernando Madinarekin bideoa grabatzeko?

M: Hodei Fernandoren laguna da eta berak proposatu zigun abestia grabatzea.

H: Elgoibarko jaietan ezagutu nuen orain dela 20 urte inguru eta harremana dugu oraindik. Berak esan zigun ea abestia grabatzen ausartuko ginen eta horrela egin genuen. Hasieran mugikorrarekin grabatutako bertsioa bidali nion, baina gero zerbait landuagoa prestatu genuen. Lehenengo soinua grabatuta eta gero irudia.

### Reincidentesen abeslariaren eskaera izanda, presio handiagoa sentitu duzue?

M: Niretzat bai, abestia gehiago landu eta prestatu behar zelako. Gero ez zen hainbestera izan, baina ez da gauza bera gure artean geratuko den zerbait edo, Reincidentesek bezalako talde batek duen oihartzuna kontuan hartuta, eurekin grabatzea.

J: Bideoak 67.000 ikustaldi inguru izan ditu, demaseko zifra guretzat. Kostako zaigu gainditzea (barreak).



### Nola sortu zenuten taldea?

M: Auto istripuan hildako gure lankidea zen Iker Amutxastegi Elgoibarko Sotoan omentzeko sortu genuen taldea. Musika-tresnak jotzen genituen hainbat lankide bildu ginen Carlosek Legarren duen lokalean eta, Ikerren omenaldian jende asko batu zenez eta gustora egon ginenez, jarraitu egin genuen.

### Aurretik beste proiektu musikalen batean parte hartu izan duzue?

H: Hau izan da nire lehen taldea.

J: Nik lokalean eta lagun artean jo izan dut, baina lehen kon-

tzertua Judas Argaraterekin izan da niretzat.

M: Nik txikitatik pianoa jo dut, baina bakarrik.

J: Carlosek du esperientzia gehien taldeetan jotzen. PAM, Julio Kageta, Napalm... taldeetan jo izan du.

H: Carlos berez ez da bateria-jolea, gitarra-jolea da, baina bikain moldatzen da.

J: Nik ere normalean gitarra jo izan dut, baina hemen baxua.

### Nolako musika egitea gustatzen zaizue?

H: Gustatzen zaizkigun taldeen bertsioak egiten ditugu.

M: Eta gure abestiek estilo ezberdinak dituzte.

H: 4-5 abesti sortu ditugu. Batzuk oso metaleroak, beste bat nahiko punkia... Denetik pixka bat, baina rockaren inguruan.

### Nolako martxa daramazue entseguei, kontzertuei... dagokionez?

M: Lankideak garenez, ordu-tegi bera izaten saiatzen gara. Carlos, ordea, Iruñean bizi da eta zaila da entseguetara etortzea.

J: Hilean birritan batu ohi gara.

### Alarma egoerak bertan behera laga ditu esku artean zenuten planen bat?

M: Bai. Marcan Huella elkar-teak Gaztetxean antolatutako behar zuen ekitaldian jo behar genuen eta Elgoibarko Sotoan Ikerren omenezko beste ekitaldi bat egin behar genuen, baina ezin izan dugu egin, ez bata ez bestea.

H: Oñatitik ere deitu ziguten kontzertua eskaintzeko.

### Momentu txarrean etorri da alarma egoera zuentzat.

M: Bai, baina era berean Reincidentesekin jotzeko aukera izan dugu.

# 10 EGUNKIA

ESKAINZA EZIN HOBEAK ekainaren 11tik 22ra

Sarrerarik gabe eta ez ordaindu abendura arte.

Elektrifikatuak barne

The Power to Surprise

## NAIA CAR

Apalategi auzoa, 1. Eibar  
943 70 70 33  
www.naiacar.com

"Bezeroaren babesa" kanpainak finantzatzeko ibilgailuentzat. Banco Cetelem S.A.U.k eskaintako finantzazioa, 4 hilabeteko gabeziarekin. Sortutako interesak kapitalari metatuko zaizkio. Hasierako ordainketarik gabe, erosteko unean. Partikularrentzat, 2020/06/11tik aurrera, Penintsulan, Balearretan, Ceutan eta Melillan, eta gubiernez 36 hilabeteko egonaldiarekin. Ezin da beste eskaintza batzuekin metatu. Ekaineko kontratazioak uztailean formalizatuko dira. Kontsultatu baldintzak www.kia.com-es







## Ikus-entzunezkoen Astearekin batera itzuliko dira Arrate Kultur Elkartearen jarduerak

Arrate Kultur Elkarteak udako ikus-entzunezko zikloa egingo du aurten ere, "zailtasunak zailtasun". Ekainaren 30ean hasiko da egitaraua, Bertha Gaztelumendi Caballeroren (Irun) "Ez, eskerrik asko. Gladys-en leihoa" (2019) dokumentalarekin. Uztailaren 1ean Koldo Edorta Carranzaren (Eibar) "Kaleko antzerkia" (2019) film laburra eta Fernando Retolazaren "De trekking por Nepal Annapurna" diaporama eskainiko dituzte eta, egitaraua ixteko, uztailaren 2an Kokein taldeak kontzertu akustikoa emango

du. Emanaldi guztiak San Andres elizako klaustroan egingo dituzte: ekainaren 30eko eta uztailaren 1eko proiektzioak 22:30ean hasiko dira eta uztailaren 2ko kontzertua, berriz, 20:00etan.

Bestalde, dagoeneko ekitaldi kulturalak martxan jartzeko baimena eman dietenez, bertan behera laga behar izan zituzten Eguen Zuri 2020ko erakusketak eta sarien banaketa egitea erabaki dute. Bihak uztailaren 1ean izango dira, 19:30ean, Arrate Kultur Elkarteako Topalekuan.



## Berriz zabaldu dute liburutegia

Barixakuan zabaldu zituen atek Juan San Martin Udal Liburutegiak, COVID-19ak eragindako egoeratik itxita egon eta gero. Astelehenetik barixakura egongo da zabalik, 09:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 20:30era. Erabiltzaileek hainbat neurri hartu beharko dituzte kontuan: Portaleko sarrera nagusitik sartu eta haur-liburutegitik irtengo da, mugikortasun urriko pertsonak izan ezik; horiek sarrera nagusitik sartu eta irtengo dira, eta igogailua erabili ahal izango dute. Mailegu-zerbitzuari ekin zaio berriz eta ikaste-ko aretoa ere erabili ahal izango da, baina edukiera %60ra murriztuta izango du eta babes-arauak eta pertsonen arteko 2 metroko gutxienezko distantzia fisikoa errespetatu beharko da. Erabilera anitzeko gela itxita egongo da oraingoz

Pertsona bakoitzak lan-eremua garbitu beharko du eseri aurretik; horretarako, desinfektatzailea eta papera izango dituzte. Bestalde, itzultitako materialak astebetetz gordeko dira, manipulatu aurretik. Liburutegira sartzeko eskuak gel hidroalkoholikoarekin garbitu eta maskara erabili behar da. Prentsa eta aldizkariak ezin izango dira irakurri une honetan, "baina gure irakurleei gogorarazten zaie aldizkariak maileguan eska daitezkeela. Bestalde, apalategiko gunera sartzeko ezinezkoa izango denez, mailegua bide hauetatik eskatzea gomendatzen dugu: telefonoz (943 70 84 37), posta elektronikoz (liburutegia@eibar.eus), whatsapp (688 691 733) bitartez eta liburutegiko katalogoaren bidez".

Torrekua, 2  
20600 EIBAR

ESTACION DE SERVICIO EIBAR, S.A. **AVIA**

Tel. eta Faxa  
943 20 62 48  
Tel. 943 20 70 31  
eseibar@facilnet.es

FURGONETEN ETA AUTOMOBILEN GARBIKETA  
AUTOMATIKOA ETA PRESIOAREKIN  
LUBRIFIKATZAILEAK  
GASOLEOEN ZUZENENKO BANAKETA

[www.estaciondeservicioeibar.com](http://www.estaciondeservicioeibar.com)

**Mail**

Apalategi, 4 - 20600 EIBAR • Tel: +34 943 70 70 50  
e-maila: mail@industriasmail.com • www.industriasmail.com

**Khôl Estilistak**

Keratina natural eta printzipio aktibo naturalen tratamenduak

**Khôl Estilistak**

Estaziño, 4 943 254776

**VALDI**  
TAILER MEKANIKOAK

Autoen konponketa orokorra.  
Injekzio mekaniko eta elektronikoa.  
Aire egokitua.  
Injekzio elektronikoa gasoia.  
Alarmak, errobera aldaketak,  
motorrendako erroberak...

Barakaldo 19, behea  
Telf. 943 12 73 98  
Mob. 639 004 603  
tmvaldi@hotmail.com

**Talleres VALDI**



Emakumearen errealitatea argi bila. FERNANDO SOLANA



		8				6	9	
				6	1			2
	6		3					
	9	6		3	4			1
4								9
	1		8	7		3	4	
					5		3	
2			4	8				
	8	5				1		

		7			6		8	5
		4			8		6	
	3					9		2
3				1	2			
			9	6				4
5	2						7	
	4		6			8		
7	8		5			4		

soluzioa


2	1	8	9	6	3	4	5	7
9	6	3	4	1	2	7	8	5
4	8	5	7	9	6	3	1	2
1	9	6	3	4	5	7	8	2
3	4	5	7	9	6	1	2	8
8	7	9	6	3	4	5	1	2
5	2	7	8	9	6	3	1	4
4	6	3	1	2	7	8	5	9
7	8	5	4	1	2	3	6	9

**SUDOKUAK**

5	2	7	8	9	6	3	1	4
4	6	3	1	2	7	8	5	9
7	8	5	4	1	2	3	6	9
3	4	5	7	9	6	1	2	8
9	6	3	1	2	7	8	5	4
8	7	9	6	3	4	5	1	2
1	9	6	3	4	5	7	8	2
2	1	8	9	6	3	4	5	7
6	3	4	5	7	8	9	6	1

soluzioa

**MARGOTZEKO**



## Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

## Farmaziak

### BARIXAKUA 19

EGUNEZ | Mendinueta (Urkizu, 6)

### ZAPATUA 20

EGUNEZ | Castaño (J. Etxebarria, 7)

### DOMEKA 21

EGUNEZ | Zulueta (San Agustin, 5)

### ASTELEHENA 22

EGUNEZ | Morgado (San Agustin, 3)

### MARTITZENA 23

EGUNEZ | Castaño (J. Etxebarria, 7)

### EGUAZTENA 24

EGUNEZ | Azkue (T. Etxebarria, 4)

### EGUENA 25

EGUNEZ | Barandela (Z. Agirre, 4)

### BARIXAKUA 26

EGUNEZ | Lekunberri (Isasi, 31)

GAUEZ BETI, 2020an,

Barandela (Ziriako Agirre, 4)

## Eguraldia (euskalmet.net)



## Hildakoak

- **Iñaki Eskibel Mugerza.** 94 urte. 2020-6-12.
- **M<sup>a</sup> Carmen Ugaldea Landa.** 64 urte. 2020-6-13.
- **Felix Miguel Ruiz.** 95 urte. 2020-6-15.
- **Arantza Alberdi Bernardo.** 76 urte. 2020-6-15.
- **Jose M<sup>a</sup> Arrillaga Larrañaga.** 85 urte. 2020-6-16.

## Jaiotakoak

- **Iare Rodriguez Lopez de Gamiz.** 2020-6-4.
- **Rayan El Moussaoui Tijarti.** 2020-6-10.
- **Kautar Ait Amer.** 2020-6-11.
- **Dylan Aaron Gutierrez Escolante.** 2020-6-11.
- **Sofia Bravo White.** 2020-6-11.
- **Iker Neyra Aedo.** 2020-6-11.
- **Mikel Lasa Fuerte.** 2020-6-12.
- **Iker Uriel Leon Mora.** 2020-6-13.
- **Abdoul Diouf Diaw.** 2020-6-13.



ek!

ESKELAK,  
URTEURRENAK  
ESKERTZAK...  
jartzeko:

943 20 09 18  
publizitatea@etakitto.eus

ek!

ETXEKOEN  
ZORION-  
AGURRAK  
bidaltzeko:

publizitatea@etakitto.eus

## IÑAKI ESQUIBEL MUGUERZA

(BELEN GALDOS ALBERDIREN ALARGUNA)

2020ko ekainaren 12an hil zen, 94 urterekin

*"ZURE irribarre eta samurtasuna betirako  
izango dira GURE ARTEAN"*

Bere aldeko Meza emango da ekainaren 21ean (domeka),  
eguerdiko 12:00etan, San Andres parroklan.





943 20 09 18

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20 ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurra etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazu. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, **MARA**, domekan 8 urte beteko dozuz-eta. Besarkada erraldoia eta musu asko famelixaren partez.



Zorionak, Amama **M<sup>a</sup> ANGELES**, gaur 90 urte betetzen dozuz-eta! Primeran pasauko dogu eguna alkarrekin. Besarkada haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, **LUKEN**, hillaren 24an 8 urte beteko dozuzelako. Disfratatu zure egunian. Asko maite zaittugu. Ama eta aittaren partez.



Zorionak, **ALAIN**, gaur 5 urte egiten dozuzelako. Oso ondo pasau eguna. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez. Asko maite zaittugu.



Zorionak, **JULE**, eguaztenian 7 urte bete zenduaz-eta. Segi holako jator.



Zorionak, **MAREN** Txurruka Sanpayo, astelehenian 3 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **IRENÍ**, etxeko printzesak atzo 6 urte egin zittuan-eta. Asko maite zaittugu eta musu haundi bat Eder, aitta eta amaren partez!



Zorionak, **LIHER**, zure 10. urtebetetze egunian!!! Asko maite zaittugu.



Zorionak, **SARA**, hillaren 17xan 10 urte bete zenduaz-eta. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, **MAITE** (hillaren 2xan 6 urte) eta **JULIA** (17xan 10 urte) urtiak bete zenduaz-eta. Patxo haundi bat famelixaren partez!!!

# zarelakogara

Izen-abizenak..... Helbidea.....  
Tfnoa / emaila..... NAN.....  
Jaiotze data..... K/K zenbakia.....

Bazkidetza edo ekarpenak egiteko

...eta kitto!  
Euskara Elkarte

Urkizu 11

943 20 09 18 - 943 20 67 76  
elkartea@etakitto.eus

NORK	EKARPENA	ERRENTAN ITZULKETA	BENETAKO KOSTUA
Umeak (16 urtetik beherakoak)	5 €	1,5 €	3,5 €
Ikasle, langabetu, jubilatutak	15 €	4,5 €	11,5 €
Langileak	45 €	13,5 €	31,5 €
Beste ekarpen batzuk	150 €	45 €	115 €

# Iragarki laburrak


**943 20 09 18**

publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

## 3. LOKALAK

### 3.1. Salgai

- Garaje itxia salgai Polonia Etxeberria kalean. Tel. 610-835256

### 3.2. Errentan

- Garajea alokatzen da Sansaburun. Tel. 647-371420.

## 4. LANA

### 4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 632-629130.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 632-647267.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko edo paseatzeko. Tel. 629-817299.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta beste edozein lanetarako. Tel. 645-248040.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 602-552748.
- Emakumea eskaintzen da lan egiteko. Tel. 612-476128.
- Emakume euskalduna eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Tel. 669-243901.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 625-287229.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 635-953329.
- Neska euskalduna eskaintzen da ekainean eta uztailean umeak zaintzeko. Tel. 688-666220.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 642-604495.
- Gizona eskaintzen da garbiketarako egiteko, tailerrean jarduteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 678-375330.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Esperientzia eta ziurtagiriak. 602-353585.
- Mutila eskaintzen da igeltsero moduan, garbiketarako egiteko eta abar. Tel. 666-101558. Menlya.
- Mutila eskaintzen da eraikuntzak lan egiteko, garbiketarako eta abar. Tel. 687-141217.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, tabernetan lan egiteko eta garbiketarako. Tel. 677-136446.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 671-330459.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 689-003537.
- Emakume arduratsua eskaintzen da etxeak garbitzeko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 685-386485.
- Emakumea eskaintzen da etxeko la-

nak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631-108345.

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. 5 urteko esperientzia. Tel. 662-045996.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Asteburuak barne. Orduka. Tel. 660-542155.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 623-340850.
- Gizonezkoa eskaintzen da arotz lanetan, metalurgian edo laborategi-laguntzaile jarduteko. Tel. 632.593515.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Tel. 631-502177.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 631-959435.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Asteburuak barne. Tel. 602-842219.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta baserrian lan egiteko. Tel. 612-535873.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 688-735551.
- Mutil arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta eraikuntzan edo mendian lan egiteko. Tel. 662-415709.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 641-821279.
- Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak edo laguntza behar dutenak zaintzeko. Autoarekin. Tel. 657-794652. Nerea.
- Emakumea eskaintzen da lan egiteko. 631-611201.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Asteburuak barne. Tel. 635-189294.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Esperientzia. Tel. 631-398396.
- Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Autoarekin. Tel. 657-794652. Nerea.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 655-778451.

### 4.2. Langile bila

- Emakumea behar da ume txikia zaintzeko irailetik aurrera. Baita gauz ere. Externa. Tel. 669-780187.

## 5. IRAKASKUNTZA

### 5.2. Eskaintzak

- LH, DBH, Batxilergo eta selektibitateko klase partikularrak ematen dira. Aurrez-aurre zein on-line. Tel. 678-937827 eta 943-584166.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira DBH, Ba-


txilergo eta Selektibitate prestakuntzako ikasleei. Antzeko ezaugarriko 4 laguneko taldeak gehienez. Gaiditu dutenen indize handia. Urte askotako esperientzia. Tel. 615-705945..

- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

## 6. DENETARIK

### 6.1. Salgai

- Denda-abantzea salgai. Camper markakoa. 75 euro. Tel. 695-708100.


**943 20 09 18**

publizitatea@etakitto.eus



# Eibarko erdigune berria



Neinor Homes sustatzailea **ARRATE HOMES** merkaturatzearekin jarraitzen du. 82 etxebizitza berrien promozioa egingo da Eibarren eta bertako bizilagunek gimnasioa eta sukaldea duen komunitate lokala izango dute erabilgarri

**ARRATE HOMES HIRIAREN ERDIGUNEAN DAGO.** Coliseo Antzokiaren, Errebal plazaren eta eraikiko den erabilera anitzeko zentro modernoaren ondoan. Zentro horrek udal-merkatua eta mota anitzeko gizarte eta kultura ekitaldiak hartuko ditu, gune hori herriko erreferente bihurtuz.

**PROIEKTUA INDEPENDENTEAK DIREN LAU ERAIKINETAN** garatuko da, beheko solairua, sei altuera eta terraza zabal eta argitsuak dituzten atikoekin. Arrate Homes osatzen duten eraikin berriek, lehendik daudenekin batera, zaindutako diseinuzko plaza osatzen dute, sarrera emanez etorkizuneko jabeek erabili ahal izango dituzten gimnasioari eta sukaldea duen komunitate-lokalari.



**ARRATE HOMES ETXE-AURRE AIREZTATU DOTOREKO MULTZO** arkitektonikoa da eta, material hautaketa arduratsuari esker, eguneroko bizitza kalitate gorenarekin, bizitzeko aukerarik eskaintzen du. Promozioak Breeam iraunkortasun-zigilua izango du eta domotikako aurre-instalazioarekin dator, kostupean pack domotikoa eskuratzeko aukerarekin.

**ARRATE HOMES-EK 1 ETA 4 LOGELA ARTEKO ETXEBIZITZAK** eskaintzen ditu, bezeroen eskariak asetzeko. Argia, orientazioa eta antolamenduak ahalik eta gehien optimizatuz diseinatu dira etxebizitzak. Logela nagusia suite motakoa da, bainugela pribatua, pertsiana elektrikoa eta horma-armairuarekin. Etxebizitza guztiak terraza zabalak dituzte, bereziki handiak atikoetan.

INFORMAZIO GEHIAGO: <https://www.neinorhomes.com/promocion/arrate-homes>

**ERREBAL PROIEKTUAREN ONDOAN**

**Neinor Store:** Bidebarrieta, 6 - Eibar

**900 11 00 22 • [neinorhomes.com](https://www.neinorhomes.com)**



# bista eder

clinica dental - hortz klinika



Hurrengoan elkarrekin  
ospatuko dugu!  
Gora San Juanak!

